


ANTONIO ZAVALA, S. I.

**JUAN MARIA  
ZUBIZARRETA  
BERTSOLARIA**

**(1855 - 1905)**



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**JUAN MARIA ZUBIZARRETA**  
**BERTSOLARIA**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**82**

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.  
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 280 pezeta    Atzerrian: 380 pezeta  
Ongilleak: 500    "    Ale bakarra: 35    "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

**JUAN MARIA ZUBIZARRETA**  
**BERTSOLARIA**  
**(1855 - 1905)**

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1969

**D. L. S. S. 41/69**

**IZARRA - Peña y Goñi, 13**  
**San Sebastián - Enero 1969**

## ARKIBIDEA

JUAN MARIA ZUBIZARRETA BERTSOLARIA ... ..	9
Bertso berriak Zubizarreta'k bere bizi-moduari jarriak: "Zubizarreta'k kasoak agertu nai ditu..." ... ..	15
Bertso berriak Zubizarreta'k jarriak: "Esplicatzerara nua bertso bi berriak..." ... ..	24
Bertso berriak Zubizarreta'k jarriak: "Aita San Inazio Loiola'kuari..." ... ..	30
Bertso berriak: "Adan da Ebaren bizitza ori..." (1895) San Antonioren bertso berriak Zubizarreta'k jarriak: "...zeruetatik jetxi zala Jangoiko gizon egiña..." ... ..	39
(1895) Bertso berriak Zubizarreta'k jarriak: "Bertsuak paratzeko artu det ustia..." ...	48
Bertso berriak Juan Maria Zubizarreta'k jarriak: "Jesusen penak kantuz jartzeko..."	55
Bertso berriak Asis'ko San Franzisko loreari J M. Zubizarreta'k jarriak: "Bertsoak paratzeko asi naiz zalantzan..." ... ..	63
Bertso berriak Juan M. Zubizarreta'k jarriak: "konbeni diran bertso berriak bear nituzke atera..." ... ..	70
Bertso berriak Juan M. Zubizarreta'k jarriak: "konbeni diran bertso berriak bear nituzke atera..." ... ..	80
San Martin de Loinaz'en bertso berriak Juan Maria Zubizarreta'k jarriak: "Bertsoak paratzeko jarri naiz zalantzan..." ... ..	87
Bertso berriak Zubizarreta'k jarriak: "Kantak jartzera noa Cuba'ko gerrari..." ... ..	96

Bertso berriak Juan Maria Zubizarreta'k jarriak: "Bertso berriak publikatzeko artu det pentsamentua..." ... ..	103
Bertso berriak Juan Maria Zubizarreta'k jarriak: "Konbeni dala iruritzen zat bertso berriak jartzia..." ... ..	112
San Antonioaren bertso berriak Juan M. Zubizarreta'k jarriak: "Bertso berriak esplikatzeke artu det pentsamentua..." ... ..	118
Muatz'ko eriotza ... ..	127
Bertso berriak Azpeiti'ko urkamendiaren ganiarian jarriak: "Jose Tejeria da au nere grazia..." ... ..	134
Bertso berriak Juan Maria Zubizarreta'k jarriak: "Jesus jaio ta irurogei ta amargarren urtian..." ... ..	142
San Pabloren bizitza bertsoetan: "Bertso bi paratzeko artu det asmua..." ... ..	152
Santa Jenobebaren bizitza: "Santa Jenobeba nolakoa zan atera noa kantatzen..." ... ..	161

## JUAN MARIA ZUBIZARRETA BERTSOLARIA

Juan Maria Zubizarreta Larrañaga, Azkoitia'n jaio zan, 1855'garren urteko Maiazaren 15'an, gaueko bederatzietan, Etxeberritxo baserrian.

Bere jaiotetxearen izenez, Etxeberritxo esan zioten bere denbora guzian Azkoitia'n, ta gaur egunean ere orrela deitzen diete ondorengoai.

Gurasoak izan zituan Jose Luis ta Josefina Antonia, biak azkoitiarrak; aitaren aldeko aiton-amonak, Nikolas ta Rosa Larrañaga, azkoitiarrak; ta amaren aldekoak, Bitor, Berriatua'koa, ta Maria Klara Ansotegi, Markina-Etxeberri'koa. (1)

Gazterik ezkondu zan, 23 urterekin, 1878'garren urteko Uztaren 23'an. Andregaiak, berriz, 18 urte zituan; Donostia'n jaioa zan, bañan Azkoitia'n bizi zana.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten: Jose Antonio, Juan Jose, Rikardo, Maria,

---

(1) Azkoitia'ko 14'garren bataio-agiri-liburua, 208'garren orrian.



Antonio, Gabino, Jose, Toribio ta Maurizia. Azkenengo au aur txikitan il zan. Orregatik, bere bizitzari jarri zizkion bertsoetan, ez du Zubizarreta'k kontuan artzen, ta onela esaten du:

Zortzi ume ditugu,  
familia fiña...

Itzaurre ontan esango diran guziak, senide auetako iruri zor dizkiegu: Antonio, Gabino ta Toribio. Antonio, bertso biltzen asi giñanean, artean bizirik zan, ta arengana joan ta argibide batzuk jasotzeko era izan genduan. Bañan liburu au prestatzen ari giñala, beraren il-berria eman ziguten.

Zubizarreta'k bertsoetan jardun omen zuan bere gazte denboran Udarregi bertsolariarekin, au Azkoitia'ra etorri zan batean. Ta onek, aren etorriaz gustatuta, onela esan omen zion:

—Goierrian kontrariorik eztezu ta kosta aldera etorri zaitez, Gipuzkoa'ko onena jarriko zera ta.

Bañan etzuan Udarregiren esana egin, Azkoitia'n gelditu zan, ta aotik aora gutxi kantatu zuan; erriz-erri eta festetan etzan ibilli. Bañan bertso-paper asko atera zuan. Bildu al izan ditugunakin libu-

ru au osatu degu. Ta galduak diranak ere, eztira gutxi izango.

Bañan ainbeste bertso jarriagatik, firmatzen ere etzekian gizona omen zan. Besteren sekretariotza bearra zuan, beraz. Orra nola egiten zuan:

Lanean, alpargatagintzan alegia, etxe-ko sala txiki batean jarduten zan. Antxen, eskuekin alpargatak egiten zituan denbora berean, buruarekin bertsoak asmatzen zituan.

Asmatutakoan, etxekoai kantatzen zizkien, semeak ere ikas zitzaten-edo.

Boz lodia omen zuan, oso eztarri ona. Ta doñu asko omen zekian.

Urrengo jai-bazkalondoan, berriz, San Martin deitzen zioten gizon bat, etxera etor-arazten zuan. Linternerua edo Epelde-fabrikari burni-lanean aritzen zana zan. Letra egiten, berriz, garai artan errian zan onentxuenetako bat izango omen zan. Ala, batek esan da besteak koptatu, bertsoak paperean jartzen zituzten.

Ondoren, kopia ori artu ta Santa Klara komentura joaten zan Zubizarreta. Emen bi kapellau ziran orduan: Don Migel Aundia ta Don Migel Txikia. Auek bertsoak irakurri ta ondo zeudela esan-

dakoan, inprentara eramaten zituan. Artean Azkoitia'n inprentarik etzan ta kanpora, Azpeitia'ra-edo, joaten zan.

Inprentatu ondoren, bertso-paper-mor-doa artu ta saltzera. Etzan urrutira joaten; inguruko errietan, Zumarraga'n, Elgoibarr'en, Zestua'n, Zumaia'n ta abar ibiltzen zan; bañan batez ere Azpeitia'n, emengo azoka-egunez, astearteetan alegia, Urola aldeko erri guzietatik jende asko biltzen baita.

Kanpora zijoanean, *cédula personal* esaten zana, gaur *carnet de identidad* deitzen danaren antzekoa, kañabera baten barrenean sartuta eramaten zuan.

Saltze-lan orretan bakarrik saiatzten zan, bañan gero bi morroi prestu izan zituan: bere seme Rikardo ta Antonio. Auek ere oso eztarri ona omen zuten ta asko laguntzen zioten.

Bertso-zaletasunaz gañera, bazuan Zubizarreta'k, orrela ibiltzera bultzatzen zuan beste motibo bat: bizi-bearra. Alpargata-gintzan irabazitakoa naikoa ez alako familia azitzeko, ta bertso-saltzeari ekin zion. Onela etxeratutakoak ere, etzuten, nik uste, lizundu-arriskurik asko izango.

Len esan degunez, Zubizarreta'k firmatzen ere etzuan ikasi; bañan irakurtzen

bai. Etxean Lardizabal'en *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* zuten, ta liburu au oso bere gustokoa zuan. Antiojuak jarri, leio ondoan exeri ta irakurtzen jarduten zan.

Zubizarreta'ren bertso-paperik geienak erlijio-gaia dute. Ba, liburu ontatik ateratzen zituan esakizunak; beraren semeak esan didatenez, liburu ontan *pundatzen* zan.

Zubizarreta gazterik il zan, 50 urte besterik etzuala. Orra nola:

Uztaren larunbata batean, ibaiean ondarretan aritu zan, ta eguzkiak burua pasatu zion. Emaztea Zarautz'en zan, ta andik etxera etorri zanean, bere gizona oiean arkitu zuan. Onela esan zion:

—Ai, Etxeberri, Etxeberri! Zu sapatu-illuntzean oiean?

Andreak bereala antzeman zion, beraz, atarramentu onik etzuala. Gisa ontako beste esaera batez ere oroitzen dira semeak. Onela esan omen zion emazteak:

—Etxeberri, zigarro bat erretzeko gogorik bai?

—Ez, Anttoni!

Ta onek orduan:

—Ai, Etxeberri, Etxeberri! Etzaude zu ederki zigarroa ere erre nai ez dezunean!

Oso erre-zalea baitzan. Zoritxarrez, andrearen errezeloak egitazkoak gertatu ziran. Esan degun bezela, larunbata-arratsaldean gaixotu zan, ta asteazkenean gorputzik zegoan, goizeko bederatzietan ilda.

Elizako eriotz-agiriak dionez, Santa Klara kalean, 54'garren etxean, lendabiziko bizitzan il zan. Eguna, berriz, 1905-ngo. Uztaren 22'gna. zan. Biaramonean lur eman zioten; esposatu zaneko 26 urte kunplitzen zitzaizkan egun berean, beraz.

## BERTSO BERRIAK ZUBIZARRETA'K BERE BIZI-MODUARI JARRIAK

Itzaurrean, beste bertsolari guziekin oi degunez, Zubizarreta'ren bizitzaren berri ematen alegindu gera.

Bañan lan ori, guk baño askozaz obeto, Zubizarreta'k berak egin zuan, bere bizi-moduari jarri zizkion bertsoetan.

Orregatik, bertso aukeraren beren egilearen bizitzaren azalgarri diralako, beste jarri-aldi guzien aurretik jartzea erabaki degu, itzaurrearen segira balira bezela.

Lenengo bertsoak dionez, Zubizarreta'k 48 urte zituala jarriak dira; 1903 urtean, beraz.

Bertso-papera, Ormaiztegi'ko Etxaburu baserriko Bixente Mujika'k Ezkioga'ko baserri batean jaso ta bialdua daukat. Beko aldean dionez, «Azpeitia — Imp. de P. M.»-en inprentatua dago.

1/ Zubizarreta'k kasoak  
agertu nai ditu,  
gusto dubenik bada  
ondo aditu:  
berrogei eta zortzi  
urtiak kunplitu,  
kontaduri ederra  
milloiak banitu;  
dietak segitu,  
bearko sufritu,  
mamiak urritu,  
indarrez txurritu;  
miseriak bajeza  
oiek baditu.

2/ Ogei ta lau urtetan  
nintzan ezkunduba,  
pamelia azten ge-  
roz egonduba;  
ta interesan ere  
ez naiz gallenduba,  
pobrien artxibuan  
nere zimenduba;  
ondo mantenduba,  
arto lizunduba,  
ogi usanduba,  
esnia minduba...  
orra nolakua dan  
nere munduba!

- 3/ Aberatsak jateko  
kapoien iztarrak,  
eltzietako saldak  
ditu izarrak;  
legatz eta bixigu,  
txuleta ederrak,  
neretzako ez dira  
mendiko eperrak;  
miseriak gerrak,  
janariak txarrak,  
pobrien negarrak,  
lan egin bearrak...  
sujetatuak daude  
nere indarrak!
- 4/ Pobrien mantenua  
ez da asko kostatzen,  
gauza bastua merke  
gera pasatzen;  
sardiña zarrak ere  
asi aumentatzen,  
diruba pagatuta  
ditugu ekartzen;  
ezurak txupatzen,  
ezpañak urratzen,  
gerade saiatzen,  
ez det nik ukatzen;  
ondo janda ez gera  
asko gizentzen!



5/ Zortzi ume ditugu,  
familia fiña,  
trabajua jateko  
sortu eziña;  
guzientzako ez da  
munduba berdiña;  
goizian porru-salda,  
gaubian jakiña:  
ondo irakegiña,  
aparra egiña,  
andriak koziña;  
postrian sardiña;  
ondo izan nai nuke  
ezin det baiña!

6/ Nere ofiziua  
alpargata josten,  
saiatutzen gerade  
aulki ta ezten;  
jornal andirik ere  
ez dute ematen:  
sei ta erdi ta zazpi  
igez eta aurten;  
egiak esaten,  
gutxi irabazten,  
ez degu izaten,  
miseria jaten;  
aberastuko gera  
alakoen baten!

7/ Alprajeta jositzen  
beti ez lanikan,  
bertsuak salduzera  
joan etxetikan;  
gauza ona zabaldua  
dirubagatikan,  
sekula ez det izango  
orren damurikan;  
ta eskandalorikan  
iñun emanikan  
ez det oraindikan  
nere partetikan;  
konzientzia libre  
daukat ortikan.

8/ Arropa berririkan  
ez degu soñetan,  
aiziak korritzen du  
zarpa-zulueta;  
asko sufritzen degu  
guk mundu onetan;  
abundantzia gutxi  
paper ta kobretan,  
urre-zillarretan;  
daude auzuetan,  
palta sakeletan,  
aspaldi onetan;  
Zubizarreta dabill  
beti zorretan.

9/ Ogei urte egiñak  
traje bi berriak,  
oraiñ estu ez dira  
orduko neurriak;  
Paris'tikan etziran  
oiek ekarriak,  
asto-illez egiñak,  
zer edergarriak!  
kolorez gorriak,  
konsolagarriak,  
lujuan txurriak,  
gaude igarriak;  
orra nere prenda es-  
timagarriak!

10/ Oial pieza eder bat  
nabil erosteko,  
asko bear familia  
ondo jazteko;  
andreak ere diyo  
ez arren uzteko,  
bere poltsa zimurra  
ez dala ustuko;  
zerbait asteko,  
gerade poztuko,  
ez gera aztuko,  
ain gutxi oztuko;  
sastriak ere pozak  
daude josteko.

11/ Pieza eder orrekin  
asi naiz tratatzen,  
andriak kantidadez  
ez dala allegatzen;  
txit gauza utsarekin  
gera konsolatzen,  
mudantza izan degu,  
asi naiz tristetzen:  
oiala Paris'en,  
diruba Londres'en  
konfiantza Cádiz'en,  
gu nola gabiltzen...  
ortzak erakutsita  
ez da pagatzen!

12/ Andriak neretzako  
dauka erasua,  
kulparikan gabe ez  
da gustosua;  
errieta egitia  
beti prezisua,  
pobrien izatia  
oso penosua;  
ori erosua,  
jenio sosua,  
itzez garbosua,  
mingaiñ aidosua;  
iñor utsik jateko  
ez dabill gozua.

13/ Anaia zarragua  
etxian zan jarri,  
basarritik kaleâ  
nintzan etorri;  
dote aundirik ere  
ez nuan ekarri,  
oraiñ nola nabillen  
esango det sarri:  
estu eta larri,  
gose ta egarri,  
tximutx eta zorri,  
entretenigarri...  
Zubizarreta dabill  
txit errukarri!

14/ Zartzaren bajezak  
ditugu jakiñak,  
asko ikusten dira  
kalbua egiñak,  
eta beste batzuek  
bizarrak urdiñak;  
nik ere falta ditut  
ortz eta agiñak,  
etziraden fiñak,  
ateratzen miñak,  
sanuak ezpañak,  
maskatu eziñak;  
nigandik libre daude  
fruta gordiñak!

15/ Amaika aldiz jua naiz  
bertsuak saltzera,  
familiak jateko zer-  
bait ekartzera;  
lapur-bildurrik gabe  
sarritan atzera,  
diruba ondotxorekin  
igual etxera;  
deskantsatutzera,  
zorrak pagatzera,  
kantuz nekatzera,  
txarra da zartzera,  
oraiñ erretiruba  
nua artzera.

16/ Disponituba nintzan  
bertsuak jartzeko,  
bederatzi puntuan  
kantatutzeko;  
neurtuba izango naiz,  
inporta etzako,  
azkenengo salida  
au da neretzako:  
gazte oientzako  
broma pasatzeko,  
dirua biltzeko,  
papera saltzeko,  
iñor erostunikan  
bada artzeko.

BERTSO BERRIAK  
ZUBIZARRETA'K JARRIAK

1/ Esplikatzera nua  
bertso bi berriak,  
laguntzen badit neri  
Birjiña Mariak;  
San Migelen milagruak  
txit arrigarriak,  
ala erakusten digu  
bere istoriak,  
ostiko-pian dauzka  
infernuko etsaiak.

2/ Lenbiziko gerra  
egiña zeruan,  
aiñgeruen artian,  
au izan goguan;  
San Migelek batalla  
irabazi orduan;  
Luziferrek arrokeriaz  
ditxa galdu zuan,  
kondenatua dago  
betiko infernuan.

3/ San Migel Excelsis'koa  
dago Nafarrua'n,  
Aralar'go mendian,  
paraje altuan;  
askok adoratzen du  
dagoan lekuan;  
milagro arrigarria  
bertan egiñ zuan,  
señale oiek daude  
txit manifestuan.

4/ Teodosio jauna  
errege-gizona,  
Nafarrua'ko seme,  
Goñi'ko zalduna;  
obligazioz kunplitzera  
kortera juana,  
etxera abia akabatzen  
artutako lana,  
engañua deabruak  
birian emana.

5/ Birian deabruak  
onela itz egiñ,  
ermitaño-jantzian,  
mingaiñ legunakiñ:  
«Emaztia oian dago  
etxeko galaiakiñ.»  
Teodosio juan zan  
kolera batekiñ,  
aita eta ama ill  
bere ezpatarekiñ.



6/ Teodosio deabruak  
lotua katian,  
aita eta ama ill  
gelatxo batian,  
emaztia eta galaia  
zirala ustian;  
desmaiatua kanpora  
juan instantian,  
eta andria billatu  
eleizako atian.

7/ Emaztia kulpagabia,  
ori da jakiña,  
Teodosio deabruak  
gezurrez engaña; (1)  
ai ura barrengo  
orduko samiña!  
doloria artu zuan  
propositu fiña,  
erremediatzeko  
bere utsegiña.

8/ Teodosio jaunak  
azkar ezagutu,  
jaun ura eziñ zan  
iñun deskansatu;  
Erroma'ra juatia  
bertatik pentsatu,  
Aita Santuarekiñ  
gogoz konfesatu,  
pekatuaren zorra  
nai zuan pagatu.

---

(1) Bertso-paper batek *guezurreasco engañuac* dio;  
beste biak, *guezurres engañua*; guk, punturako ala  
bear dualako, *gezurrez engaña* jarri degu.

- 9/ Erroma'n penitentzia  
emanik onela:  
katiak arrastaka,  
lepuan ugala,  
ori letuaz nago  
burniak zirala,  
sorbaldan gurutze bat  
Jesusek bezela,  
oiek urratu arte  
ibiltzeko ala.
- 10/ Teodosiok San Migel  
eskojitu zuan  
bere anparatzalle,  
biar zan orduan;  
bizi-modu kruela:  
gau ta egun kanpuan,  
baso-piztia bezela  
ala mendi mortuan,  
amaika sufritzeko  
jaiua munduan.
- 11/ Teodosiok pausuak  
gogozko tristiak,  
asko penatzen dira  
bai penitentiak;  
oraiñ bezela segi  
illak eta urtiak,  
ala ere osorik  
gerriko katiak,  
atsegiñ eman zion  
malla bat austiak.

12/ Aralar'ko mendiko  
leize batetikan,  
sierpiak irten zion  
tragatu nairikan;  
Teodosiok San Migeli  
eska gogotikan,  
aiñgerua instantian  
jetxi zerutikan,  
deabrua utzi zuan  
bertan ill-otzikan.

13/ Argitasuna aingeruak  
emanikan ala,  
gorputzetik libratu  
kate ta ugala;  
adierazi penitentzia  
kunplitu zuala,  
Teodosio portatu  
justu ta formala,  
salbaziorik gero  
etzeukan bestela.

14/ Teodosiok bizitza  
oso desberdiña,  
ondo eta gaizki,  
ori da jakiña;  
aingeruak gozatu  
len zeukan samiña,  
San Migelek utzi  
bertan imajiña,  
eleiza gero dago  
arentzat egiña.

15/ Egiten degunian  
nola-nai pekatu,  
ejenplo eder oni  
ondo begiratu:  
Teodosio jauna  
orobat libratu,  
aren katiak eleizan  
zintzilik paratu,  
ikusitako danak  
oi dira arritu.

16/ San Migeli eskatu  
al degun moduan,  
oroipen ori izan  
gabiltzan lekuan;  
justu eta formalak  
portatu munduan,  
berak lagunduko du  
atzeneko orduan,  
sartu gaitzala arren  
guziok zeruan. (2)

---

(2) Bertso-papera, "Imp. de E. López", Florentina Pérez Salaverria, Errenteria.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduman.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea au ere. Jose Maria Satrustegi apaiz jaunak Luzaide'ko Gaindola ballaran eskuratua.

BERTSO BERRIAK  
ZUBIZARRETA'K JARRIAK (1)

Ai-ta San I-na-zí-o Loi-o-la-ku-a-ri  
 kan-tak jar-tze-ra nu-a be-re-bi-zi-tza-ri;  
 la-gun-tzaes-ka-tzen di-ot Je-su-sen A-ma-ri,  
 gra-zi-a au e-gin-go bal-din ba-dit ne-ri,  
 a-di-tzen e-na-te-ko jen-de gu-zi-a-ri.

(1) Doñua, Azkoitia'ko Patxi Laja'k (Franzisko Garmendia) kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia.

- 1/ Aita San Inazio  
Loiola'kuari  
kantak jartzera nua  
bere bizitzari;  
laguntza eskatzen diot  
Jesusen Amari,  
grazia au egiño  
baldin badit neri  
aditzen emateko  
jende guziari.
  
- 2/ Milla lareun larogei ta  
amaikagarrena,  
Inazio jaio zala  
señalaten dana;  
badakigu Azpeiti'ko  
naturala zana,  
zortzi anaietatik  
au zan gaztiena,  
Jesusen Konpañia  
fundatu zuena.
  
- 3/ Txikitatik biar det  
nik adierazi,  
aita eta amarekiñ  
gaztetan zan bizi;  
kristandadeko eskolak  
zituan ikasi,  
gorputz ederra eta  
egokia azi,  
erregiaren paje  
juan zan lenbizi.

- 4/ Pajetza utzi eta  
soldadu jua zan,  
tropako agintari  
kapitan jarri zan;  
frantzesen kontra eta  
españolen defentsan  
Pamplona'ko kastilluan  
Inazio eritu zan,  
fiñ eta baliente  
beti portatu zan.
- 5/ Sendatzera Inazio  
etxera erretiratu,  
medikua jua da  
txit gaizki billatu;  
Sakramentu Santuak  
bertatikan artu,  
milagrozkoko ausentua  
gero zan gertatu,  
zerutik jatxi eta  
San Pedrok sendatu.
- 6/ Kalenturatik San Pedrok  
libratu aurrena,  
medikuak ezur illak  
atera urrena;  
tornuaz anka luzatu,  
ori zan txarrena,  
pazientzia ona  
Jaungoikuak emana,  
gero ere bazuan  
piska bat errena.

- 7/ Denpora pasatzeko  
liburua eskatuta,  
relijiokuak eman  
ala billatuta;  
San Inazio oian  
guzia letuta,  
instante artan jarri  
zan konbertituta,  
Jesusen amoriyuan  
biotza sututa.
- 8/ San Inazio triste  
biyotza dolorez,  
pekatu egiña pena,  
gau ta egun negarrez;  
barkazio eske Jesusi  
«Damu det!» esanez,  
Monserrat'era jua da  
konfesore galdez,  
jakintsua billatu  
au ala biarrez.
- 9/ San Iñazio allegatu  
zan Monserrat'era,  
konfesio jenerala  
gogoz egitera;  
deseo au konplitu ta  
andikan atera,  
Manresa'ra jua zan  
ospital batera,  
bizi-modu berria  
aurrera atera. (2)

---

(2) Berez, paperak *berri* ta *aurre atera* dio.



- 10/ Ezpata utzi zuan  
Monserrat'eko eleizan,  
arropak limosna egiñ,  
txit pobre jarri zan;  
ogia jan, uda erari  
luzaro egon zan,  
biziak bentzutzen  
peleiatua zan,  
ala urte bat pasa  
osoa Manresa'n.
- 11/ Doloria eta propositua  
biar artu fiñak,  
erremediatzeko (3)  
bere utsegiñak;  
penitentzia aundiak  
santu onek egiñak,  
egunero bizkarrari  
eman disziplinak,  
ala bentzutzen dira  
gorputzaren griñak.
- 12/ Zaku-gisako tunika  
soñian jantzita,  
pelegrino jua zan  
mundua utzita,  
Kalbarioko mendiari  
egitera bisita;  
Jesusen pausuak  
danak ikusita,  
estudiatzen asi zan  
andik etorrita.

---

(3) Bertso-paperak: *remediatzeko*.

13/ Munduko zer esanak  
etzuten bildurtzen,  
ogei ta amairu urterekin  
asi esturiatzen;  
fiñeza osoan zan  
gogotik saiatzen,  
gramatika esamiñatua  
emendik juan zen,  
filosopi ta teolojia  
ikasi Paris'en.

14/ San Inaziok Paris'en  
lagunak billatu,  
modu batera zuten  
an esturiatu;  
limosnan bildu eta  
kastuak pagatu,  
karidadetik geirako (*sic*)  
ziran allegatu,  
ta gero Venecia'n  
meza zelebratu.

15/ San Inazio gañera  
bederatzi lagunak,  
Venecia'tik ziran  
guziak juanak;  
Erroma'n Aita Santu (4)  
egiten zuanak  
Ordena konfirmatu  
Paulo irugarrenak,  
kontentuz jarri ziran  
deseo zutenak.

---

(4) Bertso-paperak: *Roman*.

- 16/ Jesusen Konpañia  
ala fundatua,  
Inazio guzien buru  
zuten nonbratua;  
ta birtutian ere  
txit aurreratua,  
Jaunak orretarako  
ura zan autua,  
animen onerako  
mundura sortua.
- 17/ San Franzisko Jabier  
ori zan naparra,  
Inaziok izan zuen  
txit lagun azkarra;  
munduan bazeguan  
jaun oien biarra,  
infernuko etsaiari  
egiteko gerra,  
oiek bentzutu zuten  
Lutero okerra.
- 18/ Santu onen izatia  
karidadetikan,  
eta limosna asko  
egiñaz andikan;  
juaten bazitzaion  
iñoiz pobrerikan,  
zerbait emango zion  
ezta dudarikan,  
personak ezin izan  
biotz oberikan.

- 19/ Inazioren semeak  
munduan zabaldu,  
anima bat bakarra  
ez dute nai galdu;  
oien esanetara  
jarri obe degu,  
salbazioak begiratzia  
merezi ez al du?  
gloria penagatik  
ez dezagun galdu.
- 20/ Inazioren semeak  
badira oraindikan,  
Europar eta Asian  
eta Amerikan, (5)  
Ozeanian eta  
gañera Afrikan,  
anima konbertitzen  
dabiltz gogotikan,  
Konpañia onen pausuak  
ez dira alperrikan.
- 21/ Azpeiti'ko erri noblean  
Loiola'n jaio zan,  
sortzetik euskalduna,  
txit aberatsa zan;  
interesak utzita  
bizia pobrezan,  
San Inazio egunian  
Erroma'n illa zan, (6)  
birtute askorekiñ  
zerura jua zan.

---

(5) Bertso-paperak: *ta*.

(6) Bertso-paperak: *Roman*.

22/ Zorioneko Inazio  
sortu Euskalerrian,  
milagro asko egiña  
modu egokian;  
milla seireun gañera  
ogei eta bian,  
kanonizatu zuten  
onore aundian,  
oraiñ gozatzen dago  
zeruko glorian.

23/ Aita San Inazio  
pobreza tristian  
animak konbertitzen  
bizi zan artian;  
aren antzera izaten  
saiatu gaitian,  
justuak zer poza  
illtzeko instantian,  
onak ez du damuko  
egunen batian. (7)

---

(7) Bertso-papera, "Imp. de E. López", Aduna'ko Torre baserrian jaso.

Bertso-papera, "Orúe, —Impresor—, Eibar.", Errenteria'ko Gertrudis Arrieta zanari jaso.

"Goiz-Argi", 103'gn. zenb., 1968/VII.

## BERTSO BERRIAK

- 1/ Adan da Ebaren bizitza ori  
kantuan nua berritzen,  
zeruko Aita, biotzetikan  
laguntza dizut eskatzen;  
lendabiziko personetatik  
etsaia asi zan tentatzen,  
pekatuaren mantxa gaiztuak  
gero beti du segitzen.
  
- 2/ Lur piskarekiñ gorputza egiña  
lendabiziko persona,  
espiritua ezerezetik  
formatu zion urrena;  
bere egilleak uste izan zuan  
izango zala zuzena,  
esan biar det nola izan zan  
guraso oien atzena.
  
- 3/ Pekatuaren mantxarik gabe  
Adan genduan sortua,  
gorputz ta odol animarekiñ  
paradisuan piztua;  
aren kostilla-ezurrarekiñ  
Eba gero formatua,  
lan ori egiña, nere kristauak,  
gure Jaungoiko justua.

4/ Adan da Eba Jaunak jarriak  
paradisuko partian,  
baratza edo loretegian  
fruta ederren tartian;  
deskontenturik etzuten izan  
ezertatikan artian,  
gero etsaiak lotu zituan  
pekaturako kation.

5/ Jaungoiko Jaunak paraisuan  
ordena zuan prestatu:  
erdiko arbolatik fruta jatea  
zorrotz zien debekatu;  
kriatura aien leialtasuna  
etsaiak ezin sufritu,  
engañatuta eragiñ die  
Adan da Ebari pekatu.

6/ Subea aotik itzegiñaz (1)  
engañu ori emana,  
nere kristauak, deabrua orra  
ez da sujeto zuzena;  
Adan da Ebak egiñ bazuten  
Jaungoikuaren esana,  
guretzat ere etzan izango  
gero onenbeste pena.

---

(1) Bertso-paperak: *sube*.

- 7/ Emakumea abenturatu  
aurrena fruta jatera  
gizonak ere probatu zuan,  
zuzentasuna atzera;  
Jaungoikuari etortzen zaio  
izugarrizko kolera,  
Adan da Eba paraisotik  
derrepentian atera.
- 8/ Adan da Eba billotsik zeuden, (2)  
senar-emazte biziak,  
erraz galduak oroitzen ziran  
lengo ontasun guziak;  
gure Jainkoak eman zizkien  
alako penitentziak,  
kunplitutzeroa juanak ziran  
abere-narruz jantziak.
- 9/ Penen artian sartuak zeuden  
Adan da Ebaren biotzak,  
garai orretan pasiak ziran  
oso miseria latzak;  
jatekorikan etzeguan ta  
gorputzak ere txit otzak,  
paraje artan besterik etzan:  
sastraka edo ametzak.

---

(2) Bertso-paperak: *bildotzik*.



10/ Guraso aiek bakardadian  
tormentu asko pasatu,  
txit borondate osuarekiñ  
penitentzia kunplitu;  
pekatuaren zorrak aundiak  
izanagatik pagatu,  
Adan da Eba, nere kristauak,  
biak ziraden salbatu.

11/ Bederatzi eun eta gañera  
ogei ta amar urtian  
Adan da Eba bizi izanak,  
pentsatzen jarri gaitian;  
mundu luzia igaro zuten  
pena askoren artian,  
oraiñ gloriak gozatzen daude  
eternidade guztian.

12/ Adan da Ebaren seme oietan  
Kain genduan zarrena,  
bere anaia Abel ill zuan,  
ori egiñik aurrena;  
Jaungoikuari prestatu zion  
asko ofensa ta pena,  
lendabiziko kondenatuta  
infernura zan juana.

13/ Engañatuta anaia Abel  
eraman pasiatzera,  
bire batian illotzik utzi,  
etxera etorri atzera;  
Jaungoiko ona prestatzen zaio  
kontu justua artzera,  
derrigorrian Kain jarri zan  
okerra akusatzera.

14/ Kulpa-gabia eta zuzena  
Abel justua salbatu,  
Jaungoikuaren justiziak Kain  
bertatik madarikatu;  
gaiztakeria ona eztala  
ortikan ondo pentsatu,  
bide txarretik salbaziorik  
ezin diteke logratu.

15/ Set zeritzana irugarrena  
Adan da Ebaren semea,  
Kain baño ura Jaunarentzako  
askoz izan zan ohea;  
jatorri ori gero jarri zan  
oso ajola-gabea,  
txit borondatez ukatzen zuten  
santidadeko fedea.

16/ Milla seireun berrogei eta  
amaseigarren urtia,  
mundu triste au egiñ zanetik  
dilubiora artia;  
ikusten zuan jente guztia  
pekatu gaiztoz betia,  
kolera osuan sartua zeuan  
gure Jangoiko maitia.

17/ Jaungoikuaren idia zeuan  
mundua ondatutzeko,  
orretarako baño naiago  
pekatuak barkatzeko;  
baña jentiak gogorikan ez  
argana konbertitzeko,  
motibo ori bakarrikan zan  
dilubiyua sortzeko.

18/ Dilubiyua nola zetorren  
aurretik manifestatu,  
pekatariak, buru-gogorrak,  
ori etzuten sinistu;  
fede santuko itzaren kontra  
egiten zuten pekatu,  
ujaldiakin Jaungoiko Jaunak  
mundu guzia ondatu.

19/ Orretarako arka eder bat  
Jaungoiko onak eragiñ,  
kristau, egazti, animaliak  
konserbatzeko orrekiñ;  
Noe justua barrena sartu  
bere iru semiakiñ,  
ezkonduak ziran ordena onian,  
zortzi persona alkarrekiñ.

20/ Lau emakume arkan sartuak,  
gañerakuak gizonak,  
beste justurik munduan etzan,  
oiek ginduzen zuzenak;  
gaizto guziak urak tragatu,  
ez izan balira onak,  
modu orretan kunplitu ziran  
Jaungoikuaren ordenak.

21/ Pizti, egazti, animaliak  
oraiñ bezela orduan,  
klase guziak pareja bana  
gorde arkaren barruan;  
atertu gabe segitu euriak  
berrogei egunen buruan,  
ontzi ori abiatu zan  
txalupa baten moduan.

22/ Mendi guziyak dilubiyuak  
udez estali zituan,  
arka ibilli legorrik gabe  
amar illabete justuan;  
orduan ere gelditua zan  
oso paraje altuan,  
Armenia'ko mendi gañian,  
Ararat deritzan puntuan.

23/ Mendi tontorrek agertu ziran,  
udak bajatzen asiak,  
urte bat oso arkan pasatu,  
atera ziran guziak;  
ofrendak egiñaz Noe emana  
Jaungoikuari graziak;  
mundu guztian besterik etzan  
zortzi persona biziak.

24/ Jaungoikuaren kontra dagoana  
izan bear da erruki,  
orrelakuak dilubiyuan  
domatu ziran ederki;  
oiek guziyak egiak dira,  
ez dudarikan eduki,  
liburuetan leturik dauzkat,  
Zubizarreta'k badaki. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Eibar. — Imp. de Pedro

*Orúe*", Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostia'n.

Bertso-papera, "*Establecimiento tipográfico de los Hijos de I.R. Baroja. Constitución 2.*", Errenteria'ko Joakin Ganborena Zabala'gandik jaso. Izenburua onela du: BERTSUAK, LENGUAK BATZUAK. Paper onek jarri-aldi ontako lenengo amairu bertsoak dakarzki, 4 ta 5'garrena alkarrekin tokiz aldaturik dituala. Gañerako aldaketak: 1/2: kantuz asi naiz berritzen; 1/5: lendabiziko personagandik; 4/6: gauza arreatatik artian; 5/2: ordena ziyen prestatu; 5/3: arbol batetik fruta jatia; 5/5: leialtadia; 6/1: itzegin da; 6/3: deabrua ori; 6/5: bazuten; 6/7: gureztat ere etzan etorko; 8/1: Adan ta Eba beldurrak zauden; 8/7: kunplitutzen ibilli ziran; 8/8: larruz; 9/3: modu orretan pasiak dira; 9/6: barrenak ere txit otzak; 9/7: parajia artan; 9/8: zartakak edo ametzak; 10/1: Gure aurreko guraso oiek; 11/3: bizi izanduak; 12/8: infernura da juana; 13/3: bire batian illa utzita; 13/7: gatzakeriya dala meriyoz; 13/8: zuaz anima galtzera.

Ta ondoren beste bi bertso auek:

14/ Diranak diran bezela  
orra esplikatu egiyak,  
konsideratzen jarri ezker  
negar egin lezake arriyak;  
ez gero iñor pekatuakin  
munduan bete neurriyak,  
obra onakiñ alkantza dezagun  
zeruetako gloriyak.

15/ Bi bide daude guri jarriak,  
orain kontuak atera,  
gure gain utziya dago  
egitiñ dezagun aukera;  
ez gaitzela iñor jua  
ona utzi ta txarrera,  
gusto dubenak artu dezake  
bost zentimuan papera.

(1895)

SAN ANTONIOREN BERTSO BERRIAK  
ZUBIZARRETA' KJARRIAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta  
amabostgarrena jakiña,  
zeruetatik jetxi zala  
Jaungoiko gizon egiña;  
milagro eder bat publikatzera  
egin biet alegiña;  
konbeni bada lagun zadazu  
Jesusen Ama Birjiña.
  
- 2/ Euskal-errian ementxen dago  
ditxa zori onekua,  
deitzen zaiona San Antonio,  
au da Urkiola'kua;  
il da gero ta bizi zan arte  
beti birtute andikoa,  
esan bear det milagro eder bat  
orain gertatutakua.
  
- 3/ Asko bezela famelia bat  
dago Bizkai'ko Gatika'n,  
basarria da Urtiko-etxe,  
ortan ez da dudarikan;  
mutu eta mankua zuten  
seme bat jaiotzatikan,  
iñola ezin alegratu zan  
gurasoen biotzikan.

4/ Iru urte ta sei illabete  
Franziskoren edadia,  
eta oñez ikasitzeko  
itxurarikan gabia;  
San Antoniori presentatzia  
guraso oien idia,  
konbeni bada senda dedilla,  
zer da eskari obia?

5/ Maiatzaren ogei ta amarrean  
guraso oien etorrera,  
aita-ama eta Franzisko,  
irurak ziran batera;  
eta gabian allegatuak  
Urkiola'ko bentara,  
bigaramonian nobena asi ta  
duroko meza atera.

6/ Fede onean meza entzutera  
irurak zuten segitu,  
Santusian apaiza eta  
mutilla izketan mugitu,  
oñen gañean eliza dana  
berak bakarrik korritu;  
San Antoniok milagro asko  
orrela egiten ditu.



7/ Pozez zoratzen arkitzen ziran  
Franziskoren gurasuak,  
ditxa aundi au eman diote,  
bai, santu gloriosuak;  
fede firmean obra onetan  
egiten diran pausuak,  
aztu gabe pagatzen ditu  
gure Jaun amorosuak.

8/ San Antonioren lanparan  
zeguan olioarekin,  
Franzisko ori igurtzi zuten  
txit fede firmiarekin;  
dudarik gabe birtute aundiak  
izango ditu berakin,  
zenbateraño eziñ juzgatu,  
Jaungoikuak berak jakin.

9/ Penen artean ala egoteko  
betiko etziran jaiuak,  
zori onian guraso oiek  
Urkiola'ra iguak;  
Franzisko orri fede onakin  
leitu Ebanjeliuak,  
oiek dirade etsai gaiztuen  
kontrako erremediak.

- 10/ Mutua eta mankua zana  
Franzisko ainbeste urtian,  
eta milagrozt sendatu da,  
pensatzen jarri gaitian;  
eta Urkiola'n egonak dira  
bederatziurren batian,  
meza promes edo nobenak  
dana kunplitu artian.
- 11/ Meritu andiak logratzen dira,  
kristauak, obra onetik:  
promes eginda atera ziran  
guraso biyak etxetik;  
seme Franzisko sano jarrita  
juan da Urkiola'tik,  
ditxa aundi bat biraldu dio  
San Antoniok zerutik.
- 12/ Oiek etziran modu orretan (1)  
asiak lendabiziko,  
ta gurasuak billatzen zuten  
mediku jakintsu asko;  
oiek guziak pultsua artua,  
mutill ori da Franzisko,  
zazpi urte kunplitu arte  
etzala sano jarriko.

---

(1) Bertso-paperak: *etziran*.

- 13/ Meritu andiak logratzen ditu  
kristauak obra onetikan,  
eta milagroz sendatua da, (2)  
ortan ezta dudarikan;  
Jaun zerukuak nai duanian  
ezta arentzat eziñikan,  
ezta izan da izango ere  
alako medikurikan.
- 14/ Milagro ori eragin du  
kristauen fede biziak,  
guraso aiek meritu aundiak  
dituzte irabaziak;  
oiek orrela gertatu dira,  
gero ditu notiziak,  
sano dabill seme Franzisko  
Jaungoikoari graziak.
- 15/ Sinismen gabe persona franko  
egoten gera etsita,  
obra on oiek egiten dira  
fedian firme asita;  
baldatu askok egiten dio  
San Antoniori bisita,  
etxera sano makulu edo  
tresna guziak utzita.

---

(2) Bertso-paperean: *ta*.

16/ Fede otzian bizi geranak  
ala ditut oserbatzen:  
jeneralian ibiltzen dira  
gaiztoz gezurrak kontatzen,  
alegiñian ibiltzen dira  
milagro oiek desonratzen;  
euskaldunen odol onari  
ori etzaio tokatzen.

17/ Fede bizia artu dezagun  
ori bakoitzak beretzat,  
ona izana, nere kristauak,  
mesede animarentzat;  
eta kalterik ez tatorkigu  
ortikan gorputzarentzat;  
Jaunak kriatu ginduzen eta  
danok nai gaitu beretzat.

18/ Urkiola'n persona askok  
kunpli bederatzaurrenak,  
mezak atera eta gañera  
egunoroko nobenak;  
oiek dirade San Antoniori  
asko gustatzen zaizkanak,  
zorionekuak fede onian  
ala egiten dutenak.

19/ San Antoniori eman deiogun  
graziak eta eskerrak,  
fede onian bizi gaitian  
Gipuzkoa-Bizkaitarrak,  
eta igual deitzen diet  
Arabar eta Naparrak;  
guziok gera euskaldunak, (3)  
arren, ez izan zabarrak.

20/ Milagro ori gertatua da  
Urkiola'ko tenpluan,  
San Antoniok birtute aundiak,  
daukazki bere eskuan;  
lagun zaiguzu orain da beti  
eriotzako orduan,  
zori onian gerta gaitezen  
gero guziok zeruan. (4)

---

(3) Bertso-paperean: *gero*.

(4) Bertso-papera, "Imp. y Librería de Elosu. — Durango"; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertso-papera, "Es propiedad. — Imprenta y Librería de Elosu. — Durango. — Es propiedad", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "Imprenta de Saturnino de Diego. — Eibar", Errezil'ko Loita-azpikoa baserritik.

Bertso-papera, "Tip. de S. de Diego. — Eibar", Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, Donostia'n.

(1895)  
BERTSO BERRIAK  
ZUBIZARRETA'K JARRIAK

1/ Bertsuak paratzeko  
artu det ustia,  
misionistai graziak  
kantuz ematia;  
Padre Legarra eta  
Aita Apraiz bestia,  
nai dute guziok  
zerura juatia;  
estimatu dezagun  
erruki izatia.

2/ Misioa Laurkiñ'a  
gogoz etorria,  
Lardizabal jaun orrek  
zuan ekarria,  
gizon orren enpeñoa  
txit arrigarria,  
eta barrio edo (1)  
Aia'ko erria,  
guk izan degun ditxa  
estimagarria.

---

(1) Bertso-paperean: *ta*.

- 3/ Aia eta Zarauz,  
bestia Orio,  
jendiak asistitu du  
umil da serio;  
alperrik egotiak  
ez baitu balio,  
obra onetan segi,  
ortan egon fio:  
Jaunak zeñi beria  
pagatuko dio.
- 4/ Misionero jesuitak  
gogoz predikatubak,  
aditzen egon gera  
oso gustatubak;  
gizon jakintsu eta  
estudiatubak,  
bederatzi-urrienian  
asko nekatubak,  
animen onerako  
dira saiatubak.
- 5/ Garbi esplikatua  
jaun oien mingaña,  
egin dezagula arren  
ondo esamiña;  
ta doloria artu,  
propositu fiña,  
pekatubak konfesatu,  
barkatzia jakiña,  
naiz-ta izan itxasuan  
ondarrikan aña.

6/ Pekatubak gogoratzeko  
ez dira txarrenak  
amar mandamentubak  
Jaungoikuarenak;  
bost kondizio ditu  
konfesio onak,  
oiek ondo kunplitzen  
or dauzkagu lanak,  
preziso egiñ bear  
salbatuko danak.

7/ Lotsa eta malizia  
utzirik aurrena,  
egiaz konfesatu  
gogoratzen dana;  
penitentzia kunpli  
al dan azkarrena,  
zorrra pagatzen da  
pekatuarena,  
ori da guretzako  
ditzarik onena.

8/ Komulgatu ondorian  
au egiñ lenbizi:  
kontsideratuaz eman  
graziak Jesusi;  
ez-jakiñak bageunden  
guziok ikasi,  
misiuak txit ondo  
du adierazi  
zeruko erreñua  
nola irabazi.



- 9/ Misiuak predikatu  
digute onela:  
umiak edukatzen  
saia gaitezela,  
familiko burubak  
txit asko gaudela,  
jeneralian ori  
gertatutzen dala:  
gurasoak nolako  
aurrak ere ala.
- 10/ Infarnuko deabruak  
inbiriosubak,  
bentzu ditzagun, arren,  
oien erasubak;  
munduban bide labañak  
txit peligrosubak,  
kontu nundik dabiltzan  
umien pausubak,  
obligazio ori  
degu gurasuak.
- 11/ Misiuak enkargua  
au da umiari:  
umil obeditzeko  
aita ta amari,  
kariño onian segi  
batak bestiari,  
guziontzat onena  
izango da ori,  
disgustorik ez eman  
al bada iñori.

- 12/ Serbitzen kanpuan  
dauden mirabiak,  
askotatik batzubek  
ajola gabiak,  
ta gauza gaiztorako  
igual trebiak;  
kargu nagusi edo  
etxeko andriak,  
engañatu ez ditzan  
etsai traidoriak.
- 13/ Zenbait guraso triste  
badaure zartubak,  
familia azitzen  
asko nekatubak;  
arrazoi txarra bezela  
oso sobratubak,  
gazte buru-ariñak  
gaizki informatubak,  
geroi zer datorkigun  
atera kontubak.
- 14/ Orra gaurko eguneko  
askoren ametsak,  
beregandu naiean (2)  
munduko interesak:  
arrokeriak, banidadiak,  
lujo ta grandezak,  
ta despreziatubaz  
emengo pobrezak...  
anima salbatzeko  
modu aldrebesak!

---

(2) Bertso-paperean: *naian*.

- 15/ Nere belarriakin  
ditut oserbatzen  
kristau asko fedeko  
egiak ukatzen;  
gaiztubak esan eta  
jendia aditzen,  
egiaren itxuran  
gezurra kontatzen,  
persona onak ere  
dituzte engañatzen.
- 16/ Misiuak esan du  
au kulpitutikan:  
alde egin dezagula  
bide txarretikan;  
badaukagu gorroto edo  
injuriarikan,  
desterratu dezagun  
ori bertatikan,  
bestela ez daukagula  
salbaziorikan.
- 17/ Birtute teologalak  
dotrinan badaude,  
iñola ezin salbatu  
persona oek gabe:  
fedia ta esperantza,  
egiñ karidade,  
mundu argala pasa  
pobre ta alegre,  
ala bizi izan zan  
Jesus bera ere.

- 18/ Karidadiak ere  
parte asko ditu:  
limosna egiten ere  
al bada segitu,  
ta personak estremuan  
ikusten baditu,  
borondate onarekin  
kariñoz serbitu;  
Jaun zerukuak danak  
pagatuko ditu.
- 19/ Asko enpeñatu da  
ontan misioa:  
goizian jaiki eta  
egĩñ orazioa,  
gaubian familian  
errosarioa,  
anima salbatzeko  
dauka balioa,  
au da etsaien kontrako  
erremedioa. (3)
- 20/ Bizia eman zuan  
Jesusek gugatik,  
pekatari tristiak  
salbatziagatik;  
bear aña ez gera  
saiatzen argatik,  
konsidera dezagun  
guziok bertatik:  
etzan gutxi kostata  
juana mundutik!

---

(3) Bertso-paperean: *remedioa*.

21/ Laurkiñ'en izan diran  
misioneruak,  
Loiola'tik juanak,  
euskaldun klaruak;  
jendia arritu du  
jaun oien moduak,  
erakutsi dituzte  
bide seguruak,  
garbi gorde ditzagun  
geren estaduak.

22/ Munduan ez degu  
lezio oberik:  
pensamentu txarrari  
ez eman lekurik;  
gorputz ill da anima  
badauka garbirik,  
zeruan sartuko da,  
ez dago dudarik;  
Zubizarreta'k ez du  
deseo besterik. (4)

---

(4) Bertso-papera, "Pedro Orúe, impresor, Eibar 1895", Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduman.

BERTSO BERRIAK  
JUAN MARIA ZUBIZARRETA'K  
JARRIAK

- 1/ Jesusen penak kantuz jartzeko  
dauzkat nik pentsamentuak,  
orretarako laguntzen badit  
oraiñ Espiritu Santuak;  
tormentu asko pasatu zuan  
gure Jaungoiko justuak,  
garai onian arkitzen gera  
ateratzeko kontuak.
  
- 2/ San Joakin eta Santa Anaren  
alaba Ama Birjiña,  
argandik gero jaio zitzaigun  
Jaungoiko gizon egiña;  
Espiritu Santuaren obrazkua zan,  
ori daukagu jakiña,  
ta sinismena artu dezagun  
au da fedeko dotriña.
  
- 3/ Judas falsuak Kaifasen etxean  
egaña zeukan tratua,  
ogei ta amar dirutan ark saldu zuan  
Jesus Nazareno justua;  
biar bezela damutu gabe  
bere burua urkatua,  
ura infernuko leizian dago  
betiko kondenatua.

4/ Ostegun santu afal onduan  
Jesus maitia jua zan  
Aita Eternoari orazio egitera  
Jetsemania'ko baratza;  
eskatzen zion kaliz artatik  
ia libratzen ote zan,  
ezetz esan da auspez lurrian  
odol ixurtzen jarri zan.

5/ Jesus iltzeko denbora ori  
iya zeguan betia,  
gizona zan partetik ikaratu zan  
gure Jaungoiko maitia;  
izardi utsezko odola isurtzen  
oso egon zan tristia,  
kunpli zedilla Ark esan zuan  
Aitaren borondatia.

6/ Gu salbatzeko iltzera Jesus  
jarri zan konformatuta,  
bostegun soldadu pasiak lagun  
Judas jua zan artuta,  
Nazarenu arrapatzera  
guziak preparatuta;  
baratzatik preso eramane zuten  
sokakin gogor lotuta.

- 7/ Lendabiziko Nazarenu  
eraman zioten Anasi,  
eta ark gero biraldu zion  
apaizen buru Kaifasi;  
dotriñen kontu artutzen gogor  
asi zitzaion Jesusi,  
etxe orretan tormentu gutxi  
etzuan beregan ikusi.
- 8/ Ostegun-gabian Kaifasen etxian  
Jesus txit gaizki tratatu,  
guardian zeuden soldadu gaiztuak  
joka guzia golpatu;  
eta oriek danak eginda ere  
pazientzian sufritu,  
erakutsi zigun gaizkilliari  
guk ere nola barkatu.
- 9/ Ostiral goizian Nazarenu  
eraman zioten Pilatosi,  
ark ere laister igarri zion  
justua zala Jesusi;  
salatzailliak faltsuak ziran,  
ujuka eta garrazi,  
gurutze baten josita iltzen  
bear zutela ikusi.



- 10/ Pilatos orrek aginduta Jesus  
puskatu zuten azotez,  
sei milla sei egun golpe pasiak  
artu zituan dolorez,  
arantzazko korua sartuta arpegia  
estali zitzaion odolez...  
fedeko persona aditu utsarekin  
egon liteke negarrez.
- 11/ Ponzio Pilatos agintariya  
juduen gobernadoria,  
ark agindu zuan gurutz-iltzatzeko  
guzion Salbadoria;  
justizia ura okerra zeguan  
sekula zuzenik gabia,  
lapur baten gisa tratatu zuten  
zeru ta lurren Jabia.
- 12/ Soldadu zarrak prest egon ziran  
Jesus artzeko kanpuan,  
lendabiziko gurutze aundi bat  
para zioten lepuan;  
Kalbariora abiatu ziran  
bederatzi puntuan,  
burlaz ta joka eramane zuten  
urrikaltzeko moduan.

13/ Ikusgarritzat erabilli zuten  
Jerusalen'go kalia,  
Kalbario'ra abiatu ziran  
guziak egiñalian;  
Simon Zirineo lagundutzeko  
artu zioten bidian,  
aren anparuz Jauna jua zan  
gero deskansu obian.

14/ Iru alditan lurrera bota  
gurutzearen pixuak,  
altxa nai ta ezin, atzetik joka  
etsai soberbiosuak;  
asko kostiak eman zituan  
Kalbario'ko pausuak,  
konsideratu zer pasau zuan  
gure Jaun amorosuak.

15/ Aldapa gora gurutzearekin  
Jesusen pena samiñak,  
gaizki esaten etziran aspertzen  
judu gaiztoen mingañak;  
arpegira Jaunari txistu tiraka  
fariseo buru-ariñak,  
Semea ala ikusi ia nola zeuden  
bere Amaren entrañak.

16/ Kalbario'ra allegatu ziran  
Ostiral Santu eguardian,  
gurutz-iltzatzeko Jauna jarri zuten  
guzia larru gorrian;  
zaurietatik odola ere  
irteten zion txirrian,  
modu onetan tratatu zuten  
estadu negargarrian.

17/ Tormentu aundiak eman zizkion  
arantzazko koroak buruan,  
iltziakin josita Jesus egon zan  
bizirik iru orduan;  
Ama beria mugitu gabe  
gurutzia ren onduan,  
pena aundiagorik guraso batentzat  
ezin diteke munduan.

18/ Jesukristoren milagruakiñ  
konsideratzen bagendu,  
aren eriotzan mundu guzian  
novedadiak izandu:  
lur-ikara ere aundia eta  
eguzki ori illundu...  
juduak gogorrek izanakgatik  
txit asko ziran bigundu.

19/ Azotatu kruzifikatzen  
guzia zuten puskatu,  
etsai oiekgatik Aita Eternoari  
barkaziua eskatu,  
Adan da Ebaren pekatu ori  
eriotzarekin pagatu...  
Jesusek guri zenbat nai zigun  
ortikan konsideratu.

20/ Tormentu oiek artu zituan  
gu salbatziagatikan,  
Jesusen gorputza illa zeguan  
zintzilik gurutzetikan;  
lantza portitz bat sartu zioten  
kostadu sagradutikan,  
odol-iturriak agertu ziran  
bost llaga oietatikan.

21/ Jesukristo ori Belen'en jaio,  
Nazaret'en zan azia,  
gu salbatzeko Kalbariuan  
ark eman zuan bizia,  
zeru altuan antxen daukagu  
birtute ederrez jantzia...  
obra onakiñ egin dezagun  
arako dilijenzia. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Azpeitia: Imp. de P. Marti-  
nez.", Oxford'ko Bodleian Library'tik.

BERTSO BERRIAK  
ASIS'KO SAN FRANZISKO LOREARI (1)  
J. M. ZUBIZARRETA'K JARRIAK

- 1/ Bertsoak paratzeko  
jarri naiz zalantzan,  
Aita San Franziskoren  
ondran da alabantzan;  
Zeruko Aita lagun  
nago esperantzan,  
zure doaia ezpanu  
ezer ezin esan;  
Italia'ko lurrian  
santu au jaio zan.
- 2/ Esplikatzera nua  
euskera garbian,  
pekatariak zeuren  
estaru larrian,  
liburuak dionez  
jaun onen premian;  
milla ta eun gañera  
larogei ta bian,  
San Franzisko jaio zan  
Asis'ko errian.

---

(1) Aita Krispin Beobide'k San Franziskoren bi-  
zitzaz 1885'garren urtean argitaratu zuan liburuak,  
izen berdintsua du: *Asis'ko Loria*. Liburu ontatik  
artuko ote zituan Zubizarreta'k bertso auetako ar-  
gibideak? Ditekena da. Aita Beobide'ren liburua,  
Auspoa Liburutegiak berriro argitarazi du, bere 57-  
58'garren zenbakian.

- 3/ Ia, pekatariak,  
aditu kontuan,  
tresabian jaio zan  
Kristoren moruan;  
lan misteriosuak  
aren bataiuan,  
aingeruak besoetan  
ura jaso zuan;  
Jesusen antzekoa  
izan zan munduan.
- 4/ Aita eta amarekin  
gaztetan zan bizi,  
edukazio onian  
gurasoak azi;  
esturio aundiak  
zituan ikasi,  
prantzes, italiano,  
latin eta guzi,  
anima asko oiekin  
gero irabazi.
- 5/ Franziskok ama ona  
eta aita gaiztua,  
komerziante aberatsa,  
gizon sonatua,  
munduko interesakin  
enamoratua;  
ala segitzia etzan  
semean gustua, (2)  
gurasoa jarri zan  
txit asarretua.

---

(2) Bertso-paperean: *semearen*.

6/ Justiziara eraman  
koleran juezari,  
ta ark biak biraldu  
Obispo jaunari;  
eskubideak kendu  
bertatik aitari,  
gogoa kunplitzeko  
libre semeari,  
Jaun Zerukoa zeukan  
santuak giari.

7/ Franziskok izan zuan  
zerutikan boza:  
«Giatu biar dezu  
fedeko Eliza»;  
esan au kunplitzeko  
santu onen poza;  
alde batera utzirik  
munduko interesa,  
orretarako eskojitu  
beretzat pobreza.

8/ Belenen jaioa da  
Jesus Salbadoria,  
aren antzera izateko  
Franziskok iria;  
ta santua birtute  
ederren jabia,  
pobreza da arrosa  
arantza gabia,  
au maite zuana zan  
Asis'ko loria.

- 9/ Auts-koloreko abituak  
egin guzientzako,  
San Franzisko eta  
bere lagunentzako;  
soka bana bazuten  
gerriak lotzeko,  
au da zimendu ona  
pobreza serbitzeko,  
ala saiatzen dira  
gu salbatutzeko.
- 10/ San Franziskok eta  
gañera lagunak,  
Rivotorto'ko estalpiari  
aurrena egonak;  
erregla presentatzera  
Erroma'ra juanak,  
Ordena baimendu zien  
Inozenzio irugarrenak,  
pero Porzinkulara  
bildu ziran danak.
- 11/ Franziskok bere regla  
fundatu aurrena,  
ta gero Santa Klarari,  
ori bigarrena;  
ezkonduentzat para zuan  
*Tercera Ordena*,  
eskojitu dezagun  
bakoitzak gerena,  
animak salbatzeko  
au bide zuzena.



- 12/ Frailiak misionero  
zabaldu munduan,  
animak konbertitzen  
al zuten moduan;  
santua España'ra  
etorri orduan,  
Castilla'ko errege  
Burgos'en zeguan,  
presentatu argana  
zer deseozuan.
- 13/ Burgos'ko errege Alfonso  
bederatzigarrena,  
Franziskori laguntzeko  
baimena emana;  
eta au zan orduko  
santu onen plana:  
eliza ta konbentuak  
egiteko aurrena,  
an adoratzeko gero  
Jesukristo jauna.
- 14/ España'n ibilli  
bi urte osuan,  
milagroak egiñaz  
zebillen lekuan;  
partikular Santiago  
Galicia'kuan,  
ikazkin baten etxean  
ostatua zuan,  
atxurra artuta kanpora  
biak ziran juan.

15/ Santuak esan, ostalariak  
jo atxurrarekin,  
dirua atera lurretik  
golpe guziakin;  
zer nola idiatuak  
interesarekin,  
eliza ta konbentua  
ikazkiñak egin,  
orra zer gertatu zan  
milagro orrekin.

16/ España'tik jua zan  
kontentu aundian,  
ala letua nago  
bere istorian;  
ta allegatu Alejandria'n  
deitzen dan errian,  
gosiak nekatua,  
alimentu premian,  
bazkaltzera konbiratu  
zuten eguardian.

17/ Juaten zaio eskian  
aberats gaiztua,  
Franzisko pobriakin  
txit errukitua,  
buelatu kapoi-izterra  
limosna artua,  
zapi txurian bildu  
ondo guardatua,  
desondratzeko ustian  
arekin santua.

18/ Jende-artera juanda  
gogoz esplikatu:  
«Franziskok etzaituzte  
gaizki engañatu,  
guk baño gauza obeak  
orrek jaten ditu»;  
gordeta zeukan prenda  
gaiztoak agertu,  
kapoi-izterra arrai-puska  
milagrozt biurtu.

19/ Gaiztoa utzi zuten  
eruaeren antzera,  
bera jarri gaizki egiña  
akusatutzera;  
jentia Juan Santua  
zeguan etxera,  
zer nola gertatu zan  
manifestatzera,  
arrai-puska kapoi-iztar  
biurtu atzera.

20/ Beste erri batian  
predikatzen asi,  
jente guziak nai zuan  
santua ikusi;  
familian aurtxo bat  
bakarrikan utzi,  
bitarte artan udetan  
pazian egosi,  
guraso aien penak  
nork adierazi?

- 21/ Kutxa batian gurasoak  
gorputza sartua,  
isillik gordetzeko  
ala ideatua;  
bazkaltzera etxera  
zuten gonbiratua,  
esan bezela juan  
Asis'ko santua,  
manifestatu zuan  
ango sekretua.
- 22/ Ezer etzan bezela  
guziak bazkalduta,  
jan onduan Franziskok  
sagarra eskatuta,  
nagusia juan zan  
zerbait pensatuta,  
kutxa aurrian jarri ta  
tapa altxatuta,  
aur egosia bizirik,  
txutikan, piztuta.
- 23/ Pozak zoratzen zeuden  
aurran gurasuak, (3)  
Franziskoren egiteak  
txit milagrosuak;  
tentatzen zuan deabru  
soberbiosuak,  
etsai guziak bentzutu  
santu gloriosuak,  
beti laguntzen zion  
Jaun amorusuak.

---

(3) Bertso-paperean: *aurraren*.

24/ Eliza asko eta  
ainbeste konbentu,  
milagroz edo karidaretik  
guziak formatu;  
Alberna'ko mendian  
bost llaga ark artu,  
Jesusek berak zuan  
Franzisko zauritu,  
bizi zan arte gero  
txit asko sufritu.

25/ Kostaduko llagatik  
zerion odola,  
gorputza ere zeukan  
txit oso argala;  
esate baterako  
ezurra eta azala,  
predikatzen saiatzen zan  
sanuak bezela,  
bazekian zerurako  
egiñak giñala.

26/ Milla berreun gañera  
ogei ta seian il zan,  
Urriko illaren lauan  
zerura juan zan;  
Jesusen iduria  
egiña bizitzan,  
an baño ditxa oberik  
ez lezake izan,  
ala saia gaitezen  
geroko esperantzan.

27/ Luziferrek arrokeriaz  
galdu zuan silla,  
San Franziskok gozaten du  
izanik umilla;  
danok saia gaitzen  
salbazio billa,  
zeruan juntatzeko  
justuen kuadrilla,  
gurekin ori arren  
gertatu derilla. (4)

---

(4) Bertso-papera, "Eibar — Imprenta de Orúe",  
Paris'ko Bibliothéque Nationale'tik.

**BERTSO BERRIAK**  
**JUAN M. ZUBIZARRETA'K JARRIAK**

1/ Konbeni diran bertso berriak  
bear nituzke atera,  
zar da gaztien eskandaloak  
orain nua esatera:  
ezkondu eta gaztiak jarri  
gurasuekin batera,  
apartatuta ikusten dira  
egun batetik bestera.

2/ Apartatuta jartzen badira  
oiek alkarren urrian,  
gazteak sarri ikusi nai ez  
bere begien aurrian;  
gaizki esan da ala obratu  
ondo egin bearrian,  
malamentian guraso zarrak  
estimazio txarrian.

- 3/ On-bearrez guraso askok  
geiegi aurreratuta,  
*tercera y quinta* kontratuan  
semea mejoratuta;  
esan dan gisan, gelditzen zaio  
orobat apartatuta,  
etxean diran gauza zirtzillak  
bertatik arrastatuta.
- 4/ Oiek orrela gertatzen dira,  
daude señale klarubak,  
deskuidatubak betiko pena,  
ala ematen dit gogubak;  
gurasorikan ez izan, arren,  
grano bat ere txorubak,  
sufiziente bera dan arte  
ez utzi etxeko kargubak.
- 5/ Eskubidiak gaztiak artu,  
tratu ta joko aurrera,  
etxeko gauzak danak ondatu,  
guzientzako galera;  
pobreza orretan guraso zarrak  
baserritikan kalera,  
ta lanerako gauza ez dira,  
dijuaz ospitalera.



6/ Guraso zarrak saiatu dira  
guziak jeneralian  
ta familia mantendutzeko  
gau eta egun lanian;  
desanparuak sobra geiegi  
ikusten dira kalia,  
orgullo aundian umiak eta  
aita-amak ospitalian.

7/ Desanparatzeko guraso zarrak  
ume askoren idia,  
gaztetatikan ekartzen dute  
okerrerako bidia;  
gaizki esanaz beti asmatzen  
gezurrezko maldadia;  
arrokeriaz beterik daude,  
auzuan umildadia.

8/ Aita ta ama zarrak etxian  
seme-alabak serbitzen,  
gurasorikan munduban danik  
asko ez dira akordatzen,  
eta geiago saiatzen dira (1)  
beren buruak apaintzen;  
ume onaren izatiari  
ori etzaio tokatzen.

---

(1) Bertso-paperak: *ta*.

- 9/ Gazte batzuen propiedadia  
flojua dala deritzat,  
retiro txarra eskandalua  
dute oiek dana beintzat;  
eta gaiñera geiegi bear  
tripa ta lujarentzat,  
arrazoi txarrak beste propiñik  
ez dute gurasuentzat.
- 10/ Desanparubak sobra geiegi  
badira mundu onetan,  
gurasubentzat naitasun gutxi  
askok oi dute gaztetan;  
ta faltatubak arkitzen dira,  
ez da dudarik orretan,  
ta alegiñak eginda ere  
umiak daude zorretan.
- 11/ Ia, gaztiak, konbeni da ta  
biotz gogorrek bigundu,  
zor aundiakin arkitzen gera, (2)  
gurasubari lagundu;  
kariño onian sufritu alkarri,  
pakian ondo konpondu;  
obe genduke dudarik gabe  
ori egingo bagendu.

---

(2) Bertso-paperak: *aundiarekin*.

12/ Enredo oiek ematen dute  
dudarik gabe itxusi,  
zer eta nola faltatzen degun  
bear det adierazi:  
ispillu ederra bistan daukagu  
ondo nai bada ikusi,  
zar da gaztiak konsideratu:  
arrazoia da nagusi.

13/ Gazte leialak izan bear du  
obrazko fundamentuba,  
aita ta ama sokorritzeko  
beti iduki kontuba;  
Jaun Zerukuak berak jarria  
gure ordenamentuba,  
bear bezela ama dezagun  
laugarren mandamentuba.

14/ Mandamentuba austia degu  
oso pekatu grabia,  
ta borondatez erortzen dana  
persona ajula-gabia;  
aita ta ama sokorritzeko,  
gaztia, izan trebia,  
animarentzat logratu dedin  
ortik merito obia.

15/ Señale ona gaztiarentzat  
goizago erretiratzia,  
ta gauetakoko okasiotik (3)  
al badu apartatzia;  
eta gañera desiatzen det (4)  
abertentzian jartzia:  
gauza pisuba gurasuari  
errespetuba galtzia.

16/ Desleialtasuna, gaztiak, utzi,  
betiko gorrotaturik,  
gurasubari ez eman, arren,  
batek ere desgustorik;  
amaika aldiz kulpitotikan  
ori gaure aditurik:  
sufritu gabe alkarri emen  
ez daukagula zerurik.

17/ Orain egia esan bear det  
gusto dubanak aditu:  
ta zartza onek bajezak eta  
flakezak ere oi ditu,  
ta alimentu ona emanaz  
gurasuari segitu;  
gazte leialak meritu asko  
ala irabazten ditu.

---

(3) Bertso-paperak: *gautako*.

(4) Bertso-paperak: *ta*.

18/ Abertentzia jarri bear det  
orain nik gurasoetan,  
eskolak eman eta edukatu  
umiak ondo gaztetan,  
ta rosarioa errezatuaz  
gaubian familietan, (5)  
bizitza on bana egin dezagun  
guziok mundu onetan. (6)

---

(5) Bertso-paperak: *famili artan*.

(6) Bertso-papera, "Irún: Imp. de Valverde.", Errenteria'ko Joakin Ganborena Zabala'gandik. Onek bakarrik dauka Zubizarreta'ren izena.

Bertso-papera: "Imp. de S. de Diego. — Eibar", Jose Anjel Sarasola, Olalde, Alzibar, Oiartzun. Onek iru bertso falta ditu: 6, 7 ta 12'garrena. Ta gañera-koak orden ontan jarrita dauzka: 1, 2, 3, 4, 5, 8, 9, 10, 13, 14, 11, 15, 16, 17 ta 18'garrena. Aldaketak: 2/2: oek; 3/1: on biarran; 3/3 tercio quintos kontratueta; 3/8: arrastratuta; 5/7: lanetarako ez dira gauza; 8/4: batere ez dira akordatzen; 9/3: erretiro txarra ta eskandalua; 9/4: oiek danak beintzat; 10/1: Desanparuan sobra geiegi; 10/7: alegiñ dana eginda ere; 13/4: euki betiko kontua; 13/6: ori ordenamentua; 14/4: persona ajulik gabia; 15/2: goizo erretiratzia; 15/3: gabetako; 15/4: apartatutzia; 17/6: gisaisuari segitu; 18/3: eskolak eman edukatuaz; 18/5: errosaiyua errezatuaz; 18/7: bizitza ona egin dezagun.

Bertso-papera, "Diego.—Eibar", Jose Maria Mujika, Inza, Naparroa. Paper onek gauza guziak aurrekoekin berdin-berdin dauzka.

Bertso-papera, "Azpeitiyan.—Martinez-tarren mol-diztegiyan", Inazio Etxezarreta, Errementeri, Loiola, Azpeitia. Paper au puskatuta dago, bañan agertzen zaizkan bertso guziak Eibar'ko Diego'renean inprentatutako paper oiekin berdin-berdin daude.

SAN MARTIN DE LOINAZ'EN  
BERTSO BERRIAK  
JUAN MARIA ZUBIZARRETA'K  
JARRIAK

1/ Bertsoak paratzeko  
jarri naiz zalantzan,  
San Martin de Loinaz'en  
onran da alabantzan;  
santu balerosua  
munduan izan zan, (1)  
Jesusgatik martiri  
borondatez il zan.

2/ Milla bosteun irurogei ta  
seigarren urtian,  
Aita San Martin jaio  
Beasain'go partian,  
Amunabarro deitzen zaion  
basarri batian,  
kaletik ere dago  
oso apartian.

---

(1) Bertso-paperean: *mundutan*.

3/ Juan eta Maria  
bere gurasobak,  
erakutsi eskola  
txit kuriosobak;  
gauza onerako beti  
Martiniñen pausubak,  
dei ori eman zion  
Jaun amorosubak.

4/ Gaztetan eta gero  
umilla izan zan,  
ala letutzen degu  
Loinaz'en bizitzan;  
gramatika latiñian  
buruz azkarra zan,  
ori ikasi ta gero  
Alcalá'ra juan zan.

5/ Umilla eta leiala  
gurasubak ikusi,  
txit asko nai zioten  
beren aur Loinaz'i;  
estudiuak ematen  
borondatez asi,  
filosofia zuan  
Alcalá'n ikasi.

6/ San Martin fraile sartu  
munduba utzita,  
San Franziskoren Ordena  
ona iritzita;  
Ainon'go konbentuan  
abituba jantzita,  
pozak bere buruba  
ala ikusita.

7/ Munduko banidadiak  
ark despreziatu,  
barau ta penitentziak  
biotzez amatu;  
oiek eta gañera  
asko estudiatu,  
ogei ta bost urterekin  
meza zelebratu.

8/ España'tik juanera  
San Martin orrena,  
Mejicu'n legorrera  
irten zan aurrena;  
ta gero Manila'ra,  
ori bigarrena,  
andik misionero  
Japon'a urrena.



9/ Loinaz'en deseoa  
predikatutzeko,  
Japon'go salbaje oiek  
konbertitutzeko;  
animak irabazia,  
bai, Jesusentzako,  
konsuelo oberik  
etzan beretzako

10/ Asko konbertituba  
Japon'en frailliak,  
bañan etziran lo egon  
etsaien langilliak;  
lege gustoko apaiz (*sic*)  
idolo-zaliak,  
oiek izan zituzten  
keja emanliak.

11/ Taikosama enperadore  
japondar oiena,  
arrua eta etzan  
sujeto zuzena;  
kristau guziak illtzeko  
emanik ordena,  
oso galtzeko lege  
Jesukristorena.

12/ Jesuita ta frailiari  
eskuak ezarri,  
belarri bana ebakita  
karzeletan jarri;  
gero ikusgarritzat  
danak erriz-erri,  
Nagasaki'ra ala  
zituzten ekarri.

13/ Birian eta kartzelan  
gau eta egunak,  
belarrian puska falta  
danak ezagunak;  
animatzen zituban  
Loinaz'ek lagunak,  
baloria eman zion  
Jesukristo Jaunak.

14/ Allegatu zanian  
illtzeko ordu ori,  
kejarik etzizaion  
aditzen iñori;  
bizia ofrezitubaz  
guziak Jaunari,  
laztan eman zioten  
batak bestiari.

- 15/ Plazan zintzilik jarri  
gurutzietatik,  
lantza bi trabes sartu  
saiets banatetik;  
puntak azaldu ziran  
sorburuetatik,  
illak gelditu ziran  
istante artatik.
- 16/ Martiriyo ori zala  
ez da dudarikan,  
Santa Ageda eguna  
señalaturikan;  
ogei ta amar urte  
etzuan besterikan,  
Aita San Martin ill zan  
oso gazterikan.
- 17/ Ogei ta sei martiri  
ill ziran orduban,  
Japon'go Nagasaki'ñ;  
au izan goguan:  
fede santubagatik  
sufritu munduban,  
orain argatik daude  
guziak zeruban.

18/ San Martinentzat egiten  
eleiza berria  
argiñak ari ziran,  
aitu arrubia;  
lanari uzteko ere  
jendia jarria,  
millagro bat sortu zan  
konsolagarria.

19/ Egunaren erdian  
otsa adituta,  
jende guzia jarri  
oso ikaratuta;  
kantera bertan sortu  
mendia lertuta,  
eleiza para zuten  
oso bukatuta.

20/ San Martiñek sefaliak  
zerutik biraldu,  
oraiñ publikatzia  
merezi ez al du?  
Beasaiñ'go parrukian  
egiaz azaldu,  
iru argi egon ziran  
piztu ta itzaldu.

21/ Millagrua ikustera  
auzo erritikan  
jende asko izan zan,  
ez da dudarikan;  
eta bear etzuten (2)  
materialikan,  
argi oiek sortubak  
ezer-ezetikan.

22/ Bederatzigarren Pio  
gure Aita Santubak  
Japon'go Martiriak  
kanonizatubak,  
katolikuben artian  
danak onratubak,  
oraiñ zeruban daude  
glorifikatubak.

23/ Orra bi santu aundi  
Gipuzkoa'tikan,  
ez pensatu geiago  
oraiñdik danikan;  
Roma'ko tribunalak  
ontzat emanikan,  
San Inazio eta  
Loinaz bakarrikan.

---

(2) Bertso-paperean: *ta*.

24/ San Martiñen bizitzan  
oraiñ bertso berriak,  
gazte jendiarentzat  
konsolagarriak;  
Zubizarreta'k dira  
egiaz jarriak,  
onra bat izan dezan  
Beasain'go erriak. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Eibar — Imprenta de Pedro Orúe — 1898", Jose Korta'ri (Epelarre, Urrestilla) jaso.

BERTSO BERRIAK  
ZUBIZARRETA'K JARRIAK

1/ Kantak jartzera noa (1)  
Cuba'ko gerrari  
aditzen emateko  
jende guziari;  
notizi onak dira,  
gañera ugari,  
sujetatuko dute  
Maximo jaun ori.

2/ Jeneral Weyler jauna  
juan zan balorez,  
txit ondo portatzen da  
leitutzen degunez;  
igasi insurretuak  
gaubian da egunez,  
guzien buru dute  
Maximo Gómez.

---

(1) Paperak *Kantak jartzera* dio; *Kantak jartzera noa* jarri degu ala bear dualakoan.

3/ Kulpak norenak diran  
endrero au sortzeko,  
Maximoren ideak  
errege jartzeko,  
bera buru jarrita  
Cuba gozatzeko;  
desonra andi bat ori  
españolentzako.

4/ Bera buru jartzeko  
Maximoren galak,  
atzera eragin dio  
Weyler jeneralak;  
insurreto jaun oien  
bibote epelak  
konponduko dituzte  
tropa españolak.

5/ Insurreto jaun oiek  
dabiltza itxusi,  
okasiua ematen  
berak ziran asi;  
azariaren gisan  
mendirra igasi;  
ez dirade jarriko  
Cuba'ko nagusi.



6/ Maximok gastatzen du  
polbora ta bala,  
inozentiak frankok  
isuri odola;  
Cuba'ren jabe ez dira  
egingo iñola,  
ez dute bentzituko  
bandera española.

7/ Maximo jaun ori da  
bere ustez azkarra,  
deretxorikan gabe  
eman digu gerra;  
españolak jateko  
okela ederra,  
oien alimentua  
fruta ta belarra.

8/ Cubano oien kontuak  
zelebriak dira:  
atakian asita  
beti erretira;  
modu orretan ere  
aspertuko dira;  
milla eta bostegun  
entregatu dira.

- 9/ España'ko tropak  
baloreak ditu:  
atakian asita  
aurrera segitu;  
Maximoren zaldiak  
bearko korritu,  
koleran bibotiak  
aterako ditu.
- 10/ Maximo jaun ori da  
bere ustez abilla,  
Estado Uniduekin  
egña tortilla;  
andik ekarri zuen  
Cuba'ra partilla,  
guziak gastatuta  
orain diru billa.
- 11/ Enemiguak asko  
saiatuak fiñez,  
Estado Uniduak  
lagundu alegiñez;  
damutu-eta daude  
biotzeko miñez,  
bide gabeko lanak  
egin dute gañez.

12/ Cubano oiek ez dira  
gu beziñ abillak,  
odol beroagoa  
español mutillak;  
lastimaz eri daude  
ango kuadrillak,  
kolikoak artuta  
asko dira illak.

13/ Soldadu españolak  
an dira eritu,  
miserable oientzat  
jendea kupitu;  
oien alibiu  
limosna da bildu,  
projimua bear da  
beti sokorritu.

14/ Mutill balientiak  
joan España'tik,  
batzuek eri daude  
instante artatik;  
Jaunari erregutu  
ildakoakgatik,  
zeruan sar ditzagun  
purgatoriotik.

- 15/ Cubano oien lanakin  
legoke arritzen:  
gizon kulpa-gabeak  
dituzte urkatzen,  
elizak ondatuta  
etxeak erretzen,  
Jesusen eg..... (2)  
ez dute serbitzen.
- 16/ Cubano oien kontuak  
aspertu esaten:  
muniziorik ere  
apenas daukaten;  
lur onek mantentzen du  
asko asto-kerten,  
bengantzarekin ez da  
gerra irabazten.
- 17/ Ez du uniuak, (*sic*)  
jo zituzten polkak,  
Cuba libre izanaz  
jaun oien arronkak;  
biba jeneral Weyler,  
lagun eta tropak!  
España'ra betoz  
deretxoen lakak!

---

(2) Papera puskatua dago ta ezin irakurri da emen zer dion.

18/ Iya mututu dira  
jaun oien kornetak,  
goizeko diana ta  
gabeko retretak;  
luzaro ezin segitu  
Gomez'en disputak,  
lau laurden egingo du  
Weylerr'en ezpatak. (3)

---

(3) Bertso-papera: "*Vergara: Imp. de J. López*",  
M. Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduman.

BERTSO BERRIAK  
JUAN MARIA ZUBIZARRETA'K  
JARRIAK

1/ Bertso berriak publikatzeko  
artu det pentsamentua,  
Zeruko Aita, argi zarazu  
nere entendimentua,  
zuzen da garbi eramateko  
ejenplo onen kontua,  
Aita San Pedro Jesukristoren  
lenengo Aita Santua.

2/ Galilea'ko erreino orretan  
Aita San Pedro sortu zan,  
ta Bezaro'ko erri noblian (*sic*)  
jaio ta bizi izan zan;  
dudarik gabe jatorriz ere  
ura aberatsa etzan,  
bizimodua atera zuan  
marinel pobre arrantzan.

- 3/ San Pedro eta bere lagunak  
arrantzan, bai, gau batian,  
grano bat ere atxitu gabe  
egun-senti bitartian;  
ta Jesukristok agindu zien  
saiatutzeko artian, (1)  
eta gero atera zuten  
sare guzia betian.
- 4/ O, milagroko arrantza zala,  
danak marinel pobreak,  
Jesukristori jarraituzeko  
Aita San Pedrok ireak;  
apostoladu artua izan zan  
zeru ta lurren jabeak,  
momentu artan utzi zituan  
txalupa eta sareak.
- 5/ Jesusek eman San Pedro orri  
altueneko gradua:  
«Zu izango zera nere Eleizaren  
aurrenengo zimendua»;  
katolikuen tenplua degu  
firmia eta sendua,  
iraungo duena dudarik gabe  
gastatu arte mundua.

---

(1) Bertso-paperak: *zaituzeko*.

6/ Iru diszipulo berekin eta  
Jesus Tabor'ko mendira,  
orduko ango ikusgarriak  
arrigarriak baidira,  
Moises ta Elias presentatuak  
bere ezker-eskubira,  
San Pedro eta bere lagunak  
pozak zoratzen begira.

7/ Iru diszipulu oiek ginduzen  
Pedro, Juan da Diego,  
Jesus guziak ikusi zuten (2)  
len baño ere ederrago;  
arpegiak argi, soñekua ere  
elurra baño zuriago,  
edertasunian bere parerik  
mundu onetan eztago.

8/ Milla bostegun urte Moises  
illa zala lenagotik,  
bederatzi egun Elias profeta  
juana zala mundutik;  
ta laño batek ezkutatubak  
Jesukristoren ondotik,  
Aita San Pedro arriturikan  
jetxi Tabor'ko menditik.

---

(2) Bertso-paperean: *igesti*.



- 9/ Kaifas'en etxian Jesusen atzian  
San Pedro aurrena sartua,  
ta iru aldiz bere Maisua  
sukaldian ukatua;  
benaz damutu jarriko ezpazan  
bere entrañak lertua,  
o, Jaungoikoak barkatu zion  
egin zuan pekatua.
- 10/ Kalbario'ko mendi santuan  
Jesukristo Jauna il zan,  
ta sepultura eder batian  
enterratua izan zan;  
ta irugarren egun berian  
gorputz ta anima juan zan,  
Jesus piztuta ikusi eta  
Aita San Pedro poztu zan.
- 11/ Jesusek esan San Pedro orri  
guzien buru azaltzeko, (3)  
bere izenian mundu guzian  
dotriña predikatzeko;  
jende guztiari ondo egiñaz  
al zana konbertitzeko,  
bear bezela Jangoikoaren  
Eleiza gobernatzeko.

---

(3) Bertso-paperean: *burua galtzeko*.

12/ Jaunak Pedro utzi zuan, bai,  
au zan bere oñordia,  
guri pekatuak barkatutzeko  
emanik eskubidia;  
firmeza osuan artua zeukan  
apostoluak idia,  
al zaneraño amentatzeko  
munduan kristendadia.

13/ Kristok Eleiza utzi zuan, bai,  
San Pedro orren kontura,  
dudarik gabe gorputz ta anima  
Jesus igo zan zerura;  
Espiritu Santua, esan bezela,  
bialdu zuan mundura,  
apostoluak ganbara baten  
gordeta zeuden lekura.

14/ Aize-bolara baten moduan  
Espiritu Santua etorri,  
ta milagroko gauza bat zala  
apostoluak igarri;  
suzko mingañoak bakoitzarentzat  
bana zituan ekarri,  
predikatzeke bildurrik gabe  
danak animoso jarri.

- 15/ Simeon Pedrok okupatua  
Aita Santuaren silla,  
ta beriala abiatu zan  
anima galduen billa;  
ta Jesusekin eskolatua  
predikadore abilla,  
bi sermoietan gonbertitua  
gizon utsak zortzi milla.
- 16/ O, lenguaje askotakuak  
aditzera etorria,  
danak konprenditu beren modura,  
etzan gauza arrigarria?  
anima asko irabaztia  
Pedrorentzat pozgarria,  
zar eta gazte bataiatua  
jendetza izugarria.
- 17/ Jaio zanetik elbarri zana  
limosna-eske aurrera,  
Aita San Pedrok sendatu eta  
saltaka juan kalera;  
milagro eta predikuakin  
Kaifas gaiztoak kolera,  
Jerusalen'go kargudun oiek  
deitua tribunalera.

18/ Aita San Pedro presentatu zan  
tribunalaren erdira,  
Kaifas'ek galdeu: «Eskubidiak  
norenak edo zer dira?»  
«Zuek illdako Jaun Jesukristok  
neri emanak baidira»,  
gustatzen etzan parabola ori  
bota zien arpegira.

19/ Jesusen izenian erakustia  
Kaifasek debekatua,  
ta esan orri kasorik gabe  
San Pedrok predikatua;  
arrapatuta presondegian  
kartzela baten sartua,  
zeruetatik jetxi zitzaion  
aingeruak libratua.

20/ Pekatarien gonbersiua  
zijuan irabazian,  
Jerusalen'go kargudun oiek  
zeuden gorroto bizian;  
Aita San Pedro azotatua  
beren eginak guzian,  
ta borondatez artu zituan  
Jaungoikoaren grazian.

21/ Errege Erodes'ek eresi ori (*sic*)  
danen burua galtzeko,  
motibo ori bakarrik zuan  
San Pedro preso sartzeko;  
soldadu askok guardian zauzkan  
uste osuan illtzeko,  
aingeru batek libratu zuan  
aurrera predikatzeko.

22/ Aita San Pedrok mundu onetan  
beti persegimentua,  
milloika animak konbertitzeko  
bai eta ere talentua;  
Espiritu Santuak argiturikan  
oso entendimentua,  
zuzen da garbi eraman zuan  
bere Eleizaren kontua.

23/ Kristau guzior buru egon zan  
ogei eta bost urtian,  
ta azkenian presondegia  
bederatzi illabetian;  
ta oñaz gora, buruaz bera,  
josi gurutze batian,  
eta Erroma'n martiri illa  
arzaz akorda gaitian.

24/ Martiri ori eman ziona  
Neron enperadorea,  
kristau batentzat penagarria  
orduko krubeldadea;  
Aita San Pedrok asko sufritu,  
ori dudarik gabea,  
oraiñ betiko portero dago  
zeruko giltzen jabea. (4)

---

(4) Bertso-papera. "Imprenta de Orúe, EIBAR";  
ez nuan kontuan artu zeñi jaso nion.

BERTSO BERRIAK  
JUAN MARIA ZUBIZARRETAK  
JARRIAK

- 1/ Konbeni dala iruriten zat  
bertso berriak jartzia,  
Jesusen Biotzak zenbat nai digun  
munduan publikatzia;  
dudarik gabe gustatzen zaio  
berakin akordatzia,  
bide gaiztoan bizi geranak  
onera biurtutzia,  
dakigularik penagarria  
betiko ditxa galtzia.
- 2/ O, Beata Margaritari  
Jesus maiteak itz egiñ,  
bere biyotzaren deboziyoa  
munduan zabaldu zediñ;  
kristau fielak, konsideratu:  
txarra ta ona ez da berdiñ,  
nola biar dan kulpitotikan  
sarri digute otsegiñ,  
kuidado geren argaltasunez  
ez dezagula utsegiñ.

- 3/ Jesusek diyo: «Nai dedan orduan  
ezpanazu nai maitatu,  
ta zuk nai dezun garai orretan  
egingo naiz ezkutatu.»  
Pekataria infarnurako  
orra betiko apartatu,  
zar eta gazte, alde aurretik  
obe degu preparatu,  
gurekiñ emen orrelakorik  
arren ez dediñ gertatu.
- 4/ Deboziyo au zabaltzen emen  
oraiñ saiatzen geranak,  
bedeinkatuak izango gera  
etxe ta famili danak,  
doaia emango diye apaizari  
biguntzeko biyotz gogorrenak;  
oiek dirade, nere kristauak,  
Jesusek berak esanak,  
mudantza asko ikusi bear  
munduban bizi geranak.
- 5/ Fede epelian bizi geranak  
askotxo mundu onetan,  
igoko gera goiko mallara  
egiyaz birtutietan;  
Jesusek berak esana dago,  
ez da dudarik ezertan,  
saia gaitezen, nere kristauak,  
faltatu gabe orretan,  
ta alegiña eginda ere  
guziok gaure zorretan.



- 6/ Amaika aldiz aditu degu  
danok ondo portatzeko,  
pekaturako griña gaiztubak  
bertatik gorrotatzeko,  
Jesukristoren Biotzarekin  
animaz akordatzeko,  
bere iduri edo estanpa oiek  
atal-buruan jartzeko,  
saia gaitezen Jaungoikoaren  
kolera aplakatzeko.
- 7/ Aztuta iñor arkitzen bada  
eman nai det aditzera,  
zar eta gazte nola prestatu  
guziok konfesatzera:  
doloria ta proposituba  
arturikan biyotzera,  
pekatu danak txiki ta aundi  
egiaz akusatzera,  
saia gaitezen mantxa gaiztotik  
anima apartatzera.
- 8/ Konfesatzeko alde aurretik  
egiñ ondo esamiña,  
anparatzalle eskojitubaz  
Jesusen Ama Birjiña;  
ta doloria artu dezagun  
eta propositu fiña, (1)  
pekatu danak akusatzera  
egiñ, arren, alegiña,  
penitentzia zintzo kunplitu,  
au da fedeko dotriña.

---

(1) Bertso-paperak: *ta*.

9/ Konfesatuta komulgatuta  
bederatzi illabetian,  
illaren lenengo ostiraletan  
ia kontura gaitian;  
eta batian faltatzen badu (2)  
ori bien bitartian,  
berriro asita saia gaitean  
ondo kunplitu artian,  
ori egiña ez du damuko  
iñork egunen batian.

10/ Aurrenengo lana Jaunaren Biotzeko  
kofradian alistatzia,  
bederatzi aldiz esan bezela  
konfesatu ta komulgatzia;  
Jaungoikuari gustatzen zaio  
berekin akordatzia,  
Jesusek berak esana dago,  
inposible ukatzia:  
seguru degu azken orduan  
Sakramentuak artzia.

11/ Mundu ontako Jaungoikua da  
askorentzako diruba,  
kristau fielak, konsideratu,  
au da engaño puruba;  
Jesukristoren Biotza degu  
gorde-leku seguruba,  
manifestuban erakusten du,  
orra señale klaruba:  
gaiztuarentzat betiko penak,  
justuarentzat zeruba.

---

(2) Bertso-paperak: *ta*.

12/ Mundu onetan izango dira  
gaiztuak ere ondubak,  
ta sortzen diran biotzikan  
gogorrenak bigundubak;  
Jesusek bere eskuban dauzka  
emanak eta kendubak,  
saia gaitezen, izango gera  
bear orduan lagundubak,  
oiek Beata Margaritari  
Jaunak berak agindubak.

13/ Jeneralian gaztetan genduan  
fedeko dotriña ikasi,  
erreparatu, erakusten du  
mundu ontan nola bizi;  
ofensa guzien barkazioa,  
arren, eskatu Jesusi,  
bere odola kosta zitzaion,  
danok ginduzen erosi,  
serbitu edo amatutzia  
orain ez al du merezi?

14/ Flojedadeko ibilli oiek  
guzizko peligrusubak,  
ta obra onak animarentzat  
txit dira baliotsubak;  
deboziyo au zabaltzen saia  
aurrenengo gurasubak,  
modu berian sujetatubaz  
geren umien pausubak,  
ala graziaz beteko gaitu  
gure Jaun amorosubak.

15/ Oietik jeiki goizian eta  
señatu, arren, lenengo,  
orazio êñaz Jaungoikuari  
graziak eman urrengo;  
konbeni dana biotzez eska,  
Jesusek digu emango;  
saia gaitezen azken orduban  
ateratzeko emen ondo,  
ill da gerozko damutasunak  
alferrik dira izango.

16/ Sententziatubak izango gera  
illtzen geran momentutik,  
Jaungoikuari kontu eman bear  
instante artan bertatik;  
Kristo-Biotza zabalik dago  
oso egiña gugatik,  
saia gaitezen, nere kristaubak,  
argalak geran partetik,  
konbeni bada gorde gaitzala  
Jesusek bere eskutik. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Durango. — Imprenta y Librería de F. Elosu.", Gregorio Mujika zanaren bertso bilduman, Donostia'n.

## SAN ANTONIOREN BERTSO BERRIAK JUAN M. ZUBIZARRETA'K JARRIAK

Bertso auek inprentarazi, paper-mor-  
doa artu ta Urkiola'ra joan omen zan  
Zubizarreta, San Antonio egun batez, be-  
re seme Antonio lagun egiten ziola. El-  
goibarr'a oñez eta andik Durango'raño  
trenean joan ziran. Bean eta goian, Aba-  
diño'n eta Urkiola'n alegia, jardun ziran  
saltzen, ta paperik batere gabe bueltatu  
ziran. Paper bakoitza txakur aundi bana  
saltzen zuten. (1)

1/ Bertso berriak esplikatzekeo  
artu det pensamentuba,  
Ama Birjiña, argi zadazu  
nere entendimentuba;  
San Antonio mundu guzian  
santu aundi sonatuba,  
Lisboa'n jaio eta Padua'n  
illa eta enterratuba.

---

(1) Zubizarreta'ren seme Gabino ta Toribiok  
emandako argibideak.

- 2/ Antonioren bizitzarekin  
ia akorda gaitian:  
gaztia zala sartua zuten  
kolejio eder batian,  
ta gurasuen mendian egon  
amabost urte artian,  
San Agustinen Ordenakoa  
jantzia artu bitartian.
- 3/ Antoniori gogoa egin  
jantzia ganbiatzeko,  
San Agustinen entregatua  
Franziskorena artzeko;  
deseo ori logratu zuan  
Afrika'n predikatzeko,  
salbaje oiek konbertitutzen  
bera martiri illtzeko.
- 4/ San Antonio Europa'tikan  
Afrika aldera jua zan,  
allegatuta kostera baten  
luzaro eri egon zan;  
sendatutzeko esperantzarik  
iñundikan ere etzan,  
ideak danak alrebes irten,  
motibo ori izan zan.

- 5/ San Antoniok idea artu  
atzera bueltatzeko,  
barko batian etorri zan,  
esperantza sendatzeko;  
ordenatuba artian etzan  
ala martiri illtzeko,  
Jaun Zerukoak guardatuba  
Europa'n predikatzeko.
- 6/ Afrika'tik etorri eta  
Antonio sendatu zan,  
ta San Pablo-ermita baten  
gero luzaro egon zan;  
birtutian da estudiuban  
txit oso aurreratu zan,  
deitu zioten umill ta leial,  
meza ematera juan zan.
- 7/ Meza emanda gero ondoren  
San Antoniok, jakiña,  
misionero abiatu zan  
jakintsua eta fiña;  
deseo zuban predikatzea  
Jesukristoren dotriña,  
orretarako gutxik izan du  
ark bezelako mingaña.

8/ San Antonio abiatu zan  
anima galduen billa,  
ta baita ere konbertituba  
ezin konta ala milla;  
bera izanik kariñosua,  
leiala eta umilla,  
milagrosua ta gañera  
predikadore abilla.

9/ Semeak ama ostikoaz jo  
soberbiari poztuta,  
pikardi oiek egiten dira  
burutik ere nastuta;  
ta mutillari damutzen zaio,  
ori etzeukan aztuta,  
etxera juan, anka bi erdi  
aizkorarekin moztuta.

10/ San Antoniok jakin zuan, bai,  
gertakeri orren berri,  
ta mutillaren etxera bera  
borondatez zan etorri;  
ebakitako ankaren puska  
milagroaz zion ezarri,  
oñaze edo tormentu gabe  
len bezela sano jarri.



11/ Mutil gaztea biurtu zan  
bide gaiztoti onera,  
arrokeriak utzi zituan,  
legezko umilldadera,  
obra txarretan atzera eta  
birtutietan aurrera;  
San Antoniok maiteko gaitu  
ala izaten bagera.

12/ San Antoniok misionero  
itzaldi au gustokua:  
«O, aldareko sakramentuan  
dakagula Jaungoikoa!  
Dударik gabe ori da egia  
justu eta fedekoa!»  
Ta ereje bat presentatu zan  
sinismenik gabekoa.

13/ Milagro eder bat eskatu zion  
berak sinistatutzeko,  
ta Antoniok erantzun zion  
nai zuena eskojitzeko;  
iru egunian bere mandua  
jan gabe edukitzeko,  
Sakramentuarekin San Antonio  
orduan presentatzeko.

14/ San Antoniok esan bezela,  
joan zan garai ederrian,  
iru egunian ezer jan gabe  
mandua estremu txarrian;  
garagarra eta lastuba para  
bere begien urrian,  
ori ikusi eta belanbikatu  
Sakramentuen aurrian.

15/ Ori orrela gertatuba da,  
ori da egia justuba,  
manduak gero jan zituan, bai,  
garagarra ta lastuba;  
ta lagunakin konbertituba  
bertan ereje gaiztuba,  
San Antonio bestela pobre,  
birtutez aberastuba.

16/ San Antonio saiatutzen zan  
jendea konbertitzera,  
erri batera misionero  
juan zan predikatzeraz;  
ta alegiñak eginda iñor  
etzijuan aditzera,  
itxas-ondora arrimatu zan  
arrairi deituzera.

17/ «Jende gaiztoak nai ez du eta  
adi, itxasoko arraiak!»  
sermoia aditzera milloika ziran  
instante artan etorriak;  
ta legorrera atera eta  
buru eta belarriak,  
ta atentzioz egonak ziran  
presente aurrean jarriak.

18/ Arrai guziak ezkutatuak (2)  
botarik bendiziua,  
gauza guziak ikusi eta  
jendeak atentziua;  
milagro orrekin egiña zuan  
gaiztuen konbertsiua,  
ta lengo ordez San Antoniok  
gero estimaziua.

19/ Antonioren aita iltzera  
sospetxan urkamendira,  
ta semeari abisu ori  
zerutikan belarrira;  
milagro baten bitarten juan  
bera jaio zan errira,  
otxodo pena eskatu zien, (*sic*)  
jende guziak begira.

---

(2) Bertso-paperetan *arri guziak*; dudarik ezta,  
*arrai guziak* bear duala.

20/ Gizona il zuten Lisboa'n eta  
kulpaa mantxa gabeari,  
tribunalera ekarri zuten  
enterratutako ori,  
«Ta nere aitak eman al dizu  
eriotza ori zuri?»  
Ta illak ezetz erantzun zion  
egiaz Antoniori.

21/ Juezak edo kargudun oiek  
atrebitu itantzera,  
San Antonio para nai zuten  
nork ill zuan galdetzera;  
erantzun zien: «Ez naiz etorri  
gaiztoak kastigatzera,  
ta baña bai, au da egia,  
justuak libratutzera.»

22/ San Antonio gaztea zala  
osasuna bajatua,  
baraua eta penitentziak  
korputza asko nekatua;  
ogei ta amasei urte zituan,  
Jaunari eman kontua,  
ill da bi urte baño lenago  
zuten kanonizatua.

23/ San Franziskoren Ordenakuba  
San Antonio txit fiña,  
ikuskarri bat gertatuba zan,  
ori nago ni jakiña:  
kanonizatzeko gorputza usteldu,  
sanua zeukan mingaña,  
sermoi ederrak eta ugari  
mundu onetan egiña.

24/ San Franziskoren seme leiala  
San Antonio munduban,  
bear deguna alkantzatzeko  
bitarteko ona zeruban;  
konbeni dana biotzez eska  
bakoitzak al dan moduban,  
lagun zaiguzu orain eta beti,  
eriotzako orduban. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Oñate: Imp. de M. Raldua."; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertso-papera, "Guernica, A. de Goitia y Compañía", Azpeitia'ko Odria baserritik, Aldaketak: 3/4: San Franziskorena artzeko; 8/5: kariñokua; 11/2: gaiztotik; 14/6: bere begien aurrean; 21/2: atrebitu izan zera.

Bertso-papera, "Imp. Goitia y Cía. — Guernica", Getaria'ko Garro baserritik. Aldaketak, bigarrenengo paperarenak.

Bertso-papera, "Guernica. — Imp. Artística Goitia y Hormaechea". Gernika'ko Sebero Altube zaren paperetatik. Aldaketak, bigarren paperarenak, eta beste au: 16/6: ezin juan aditzera.

## MUATZ'KO ERIOTZA

1898'garren urtean, Aia'ko Muatz base-  
rrian, seme batek bere aita il zuan. Urte  
t'erdiren buruan, seme ori, Jose Tejeria  
zeritzana, Azpeitia'n urkatua izan zan.  
Gertaera auek Euskalerra guzira zabaldu  
ziran, noski. Ta Zubizarreta'k bertsoak  
jarri zituan. Bañan bertso auek obeto  
konpreni ditezen, gauzak nola gertatu zi-  
ran esatea komeni da. Ori egingo degu  
orain, aiton-amonen aotik eta garai arta-  
ko periodikuetatik jaso ditugun argibi-  
deak emen idatzirik.

Muatz ondoan dagoan Iturriotz'ko ben-  
tan, gari jotzea zuten. Uda-partea zan, be-  
raz. Illunabarrean, lan orretan ari ziran  
gizonak, tiro-otsa sentitu zuten alako ba-  
tean; baita begiratu ta gizon bat korrika,  
bere burua izkutatzearren alegia, ikusi  
ere. Bañan illun-bistan baitzan, ezin eza-  
gutu zuten ura nor zan.

Alderatu ta Muatz'ko etxejojaun zarra  
eriotz larrian arkitu zuten. Iltzalleak  
iltzat utzi zuan, bañan artean bizirik zala  
jaso zuten. Ta berak salatu zuan:

—Semeak galdu nau!

Semea Donostia'ra joan zan, eriotza bera kanpoan zalarik gertatua zala sinistarazi nairik noski. Garai bateko *Sebastopol* zeritzaion ostatuan sartu ta etxekoandreaki onela galdetu omen zion:

—Iñor nere galdez baldin badator, esango al diozu nik emen bi egun pasa ditudala?

Ta etxekoandreak onela erantzun omen zion:

—Iñori ortik kalterik ez badatorkio, bai.

Bañan, alako batean, guardia zibillak sartu ta preso artu zuten; baita Azpeitia'ra eraman ere.

Juezak galdezka asi zitzaizkion, ta Tejeria'k, lenengo, ezetzkoarekin erantzun zien; bertsoak dionez, *uka fuertian* egon zan; bañan gero, gezurrari ezin eutsirik, dana zan bezela aitortu bearrean arkitu zan.

Azpeitia'ko kartzelan zalarik, jatekoa etxeakoak eramaten zioten. Ta, gau batez, kartzeleroak ots raro xamarra aditu zuan: *ri-ra, ri-ra...* Asi zan gelaz-gela, ta, ain zuzen, otsa Tejeria'ren gela barrenean zan. Lima batekin leioko burniak ia eba-

kiak zituan. Lima ori etxetik ekarria zuan, andreak erretako arto aundi baten barreanean pasata. Bitartean, etxekoak zaldi batekin beraren zai zeuden, bide-gurutze batean, kartzelatik Loiola aldera goazela berreun bat metrora, garai artan an zan *santutxo* baten ondoan.

Ondoren, Azpeitia'tik Donostia'ra eramane zuten. Ta ango tribunalean, urte t'erdiren buruan, bizia kentzeko sententzia eman zioten gizagajoari.

1900'garren urteko Ilbeltzaren 14'an, illundu ondoren, Tejeria ori kotxe batean sartu ta Azpeitia aldera abiatu ziran. Donostia'n, kartzelan egon zan denbora guzian, ondo portatua zalako, etzioten lotu beatz lodiak besterik. Goizeko bost t'erdiak inguruan iritxi ziran. Tejeria'k lo artu zuan, bañan andik ordu betera esnatu ta sententzia irakurri zioten: urren-go goizean, zortziretan, urkatu bearra zala, ta publikuan urkatu ere.

Bertso-paperak Donostia'n irakurri ziotela esaten du; bañan, periodikuak diotenez, etzan ola izan; Azpeitia'ra arte etzioten albiste ori eman.

Arrezkeroztik, ogei ta lau orduan, kapillan egon zan. Iltzen laguntzeko Loiola'



ko Aita Aizpuru eskatu zuan. Onekin konfesatu ta prestatu zan.

Bitartean, berria Gipuzkoa'ko bazter guzietaraño zabaldua zan, ta ez omen zan sasoiko kristaurik gelditu ikustera etorri gabe. Periodikuak diotenez, sei milla lagun bildu ziran Azpeitia'ko Juzgaduaren aurrean. Inguruko zelai ta soroak, jendez bete-beterik omen zeuden. Oietatik asko oñez etorriak izango ziran. Euria gogotik ari zan; alare iñor ere etzan andikan aldendu, dana bukatu zan artean. Uste degunez, Telleria au izan zan Gipuzkoa'n jendearen aurrean azken urkatua.

Ala, Ilbeltzaren 16'garrenean, goizeko zortziretan, Tejeria gizagajoa urkamendira ekarri zuten. *Via Crucis* zeritzaion Kofradiko bi anaiek, alde banatatik eltzen zioten. Ondotik iru apaiz zituan: Beloki jauna, Azpeitia'ko koadjutorea, ta Loiola'ko Aita Olasagasti ta Aita Aizpuru.

Urkamendiko mallak igotzen astera-koan, txorabioa izan zuan, ta Kofradikoak igotzen lagun egin bear izan zioten.

Ta orduan, iñork uste etzuana, Aita Aizpuru jendeari itzegiten asi zan: Tejeriak, bestek konseju ori emanda ta bere burua garbitzearren, bere aita zanaren onra zikindua zuala, bere emaztearekin

konpontzen zala edo olako zerbait esanaz; bañan dana gezurra zala. Bertsoak diotenez, diru-kontua izan zan motibo guzia.

Aitari gezurrez ezarri nai izan ziotenaz, bederatzigarren bertsoa mintzatzen da. Ta, dudarik gabe, orregatixe, kontu garbia etzalako, bertso ori geroko zenbait argitaralditan kendua dago.

Aita Aizpuru'k, Tejeria'rentzat barkazioa ta orazio bana eskatuz bukatu zuan.

Ondoren, borreroak Tejeria lotu ta lepoan burnizko uztaija jarri zion. Orduan, Beloki jaunak asiera emanda, jendeak kredoa errezatu zuan. Ta, guziak artan ari zirala, borreroak bere lana bukatu zuan.

Tejeria gizagajoak, oker egin bazuan ere, ongi pagatu zuan. Agian, garai artan iltzera sententziatu zutena, gure egunotan bizirik aterako zan. Gaur egunean psikiatriari kaso geiago egiten zaio, ta Tejeria ez ote zan burutik egiña? Bada gaur lege-gizonik ala derizkionik.

Itxura danez, Zubizarreta bertsolaria ere jende tartean Tejeria'ren bukaera ikusten izan zan. Gero, bertsoak jarri ta inprentarazi zituan. Ta, Azpeitia'ko urrengo azoka-egunean, ara joan zan, bertso-paper-pilla arturik eta ogei bat urteko

bere seme Rikardo ta amabi bat urteko seme Antonio lagun zituala.


Ta Azpeitia'n, kantoi batetik-edo, irurak batera bertso kantari asi ziran. Aitak bajo-boza egiten zuan; Rikardok, tenor-boza; ta Antoniok, tiple-boza.

Jendea, berriz, bertso-paperak arrapastaka erosten asi zan. Sei milla paper eramank omen zituan Zubizarreta'k, eta bat ere gabe bueltatu omen zan etxera. Txakur aundi bana saltzen omen ziran.


Geroztik ere makiña bat aldiz argitaratu izan dira bertso auek. Gure eskuetara iritxi diran argitaraldien berri, bertsoen atzetik emango degu. Ta, zer esanik ez, gure eskuetara gabe ere beste zenbait argitaraldi izango da noski.

(1900)


BERTSO BERRIAK  
AZPEITIA'KO URKAMENDIAREN  
GAÑIAN JARRIAK (1)




Jo-se Te-je-ri-a da au ne-re gra-zi-a,



Gi-puz-ko-a-ko Aran jai-ota a-zi-a;



ti-roz ai-ta il nu-an, au da des-gra-zi-a:



pu-bli-ka-tze-ra no-a a-sun-to gu-zi-a

---

(1) Lenengo doñua, Zubizarreta'ren seme Tori-  
biok kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magneto-  
fonotik paperera itzulia da. Bigarrena ere, Zatarain  
jaunak paperean idatzia da, nor zan apuntatu ez  
genduan aiton zarren bati ikasi genion bezela.

Onela  
 ere  
 bai

-a da au ne-re gra-zi-a

pu-bli-ka-tze-ra no-a

Jo-se Te-je-ri-a da au ne-re gra-zi-a, Gi-

-puz-ko-a-ko Ai-an jai-o ta a-zi-a; ti-

-roz aita il nu-an, o-rra des-gra-zi-a: pu-

-bli-ka-tze-ra no-a a - sun-to gu-zi-a.

- 1/ Jose Tejeria da  
 au nere grazia,  
 Gipuzkoa'ko Aia'n  
 jaio ta azia;  
 tiroz aita ill nuan,  
 orra desgrazia,  
 publikatzera nua  
 asunto guzia.

2/ Deabrubak animua  
eman biotzera,  
tiroz atrebituba  
nere aita iltzera;  
Donostia'ra gero  
zerbait ekartzera,  
egin nuen okerra  
desemulatzera.

3/ Gizonak altxa zuten  
aita bizirikan,  
«O, semiak galdu nau!»  
berak esanikan;  
gurasubak etzuban  
esan gezurrikan,  
gorputza ill da anima  
juan mundutikan.

4/ Paperian jarria  
alde aurretikan,  
aitari zenbat eman  
señalaturikan;  
eske ari zan beti  
aldamenetikan,  
gure enredo danak  
sortubak ortikan.

- 5/ Aitak eskatzen ziran  
legez eta bidez,  
egiten niona da  
agindu ta eman ez;  
buru dana betia  
pensamentu txarrez,  
tirua eman nion  
dirubaren orde.
- 6/ Soldadu arma-dunak  
lotu kurioso,  
baita eraman ere  
Azpeiti'ra preso;  
deklarazio txarrak  
egiña ni oso,  
libratutzeko bear  
gezurra preziso.
- 7/ Aurrena egon nintzan  
uka fuertian,  
salatzallia pranko  
bazan bitartian;  
gero aitortu nuen  
egunen batian,  
gezur guziak ziran  
neretzat kaltian.

- 8/ Azpeitia'tik jua  
Donosti aldera,  
Gipuzkoa'ko buru  
dan tribunalera;  
akusatuba nintzan  
Judasen legera,  
gezurrak balio ez,  
neretzat galera.
- 9/ Andriak eta biyok  
emandako itzak,  
konprenditzeko ere  
oso dira gaitzak;  
oiek guziak ziran  
gezurrezko saltsak,  
aitari ezarriaz  
etzituben mantxak.
- 10/ Gaizki egin nuela  
ondo damutzen zat,  
au eskarmenturako  
beste guzientzat;  
munduban ez da izan  
oraindikan beintzat  
ume bat txarragorik  
gurasubarentzat.



- 11/ Donostia'n artuba  
nintzan albistia  
posible etzala neri  
bizirik uztia;  
ai ura orduko  
lastima tristia!  
etzan alegratuko  
nere emaztia!
- 12/ Donostia'tik giñan  
Azpeiti'ra etorri,  
bost guardiarekin  
kotxian ekarri;  
kartzelan sartu eta  
an nenguan larri,  
sententzia tristia  
zuten irakurri.
- 13/ Zuzen da garbi egin  
dute justizia,  
badakit nuela nik  
ondo merezia;  
illbeltzaren amaseirako  
nere sententzia,  
goizeko zortziretan  
kentzeko bizia.

14/ Gaiztua izan banaiz  
orra sujetatu,  
sententzia orrek ziran  
biotza erdiratu;  
Aita Aizpuru'rekin  
gogoz konfesatu,  
egindako okerrak  
danak akusatu.

15/ Pauso bat eziñ eman  
nuan ezergatik,  
bi lagun banituben  
beso banatatik;  
urkamendira jua  
giñan kartzelatik,  
borrerua begira  
zeguan atzetik.

16/ Urkamendian nintzan  
eserita jarri,  
nere entrañak zeuden  
estu eta larri;  
bizia eman bear  
oso lotsagarri,  
au beste guzientzat  
eskarmentagarri.

17/ Barkaziua nuan  
 azkena eskatu,  
 zergatik egiñ nuen  
 lenago pekatu;  
 orrengatik bear det  
 orain nik urkatu,  
 Jaungoikuari arren  
 nitzaz erregutu! (2)

---

(2) Bertso-papera, "IRUN. — Imp. de B. Valverde", Oxford'ko Bodleyan Library.

Bertso-papera, "Imp. de Vda. de B. Valverde. — Irún", Joakin Ganborena Zabala, Errenteria. Aldaketak: 2/3: tiroz atrebitu naiz; 2/8: disimulatzera; 12/1: Donostik giñan; 17/5: orregatik.

Bertso-papera, "Rentería: Tip. Vda. Valverde", Iraola-zarra baseria, Errezil. Aldaketak: 2/3: tiroz atrebitu naiz; 2/8: disimulatzera; 12/1: Donostik giñan; 17/5: orregatik.

Bertso-papera, "Reimpreso en la Imprenta y Librería de F. Elosu. — Durango", Jertrudis Arrieta zana, Errenteria. Aldaketak: 17/3: zergaitik; 17/5: orregaitik.

Bertso-papera, "Guernica A. de Goitia y Compañía", Sebero Altube zana, Gernika. Aldaketak: Izenburuan: ganian; 17/3: zergaitik; 17/5: orregaitik.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Manuel Oñatibia jaunaren bitartez Zarautz'ko baserri batetik eskuratua. Aldaketak: 2/3: tiroz atrebitu naiz; 2/8: disimulatzera; 7/1: Aurrera egon nintzan; 10/2: zait; 17/5: orregatik.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Manuel Oñatibia, Zarautz. Aldaketak: Izenburua: Bere aitari eriotza emandako semearen bertso zarrak; 1/5: aita tiroz ill nuen; 1/7: esplikatzeraz; 2/3: tiroz atrebitu naiz; 2/5: Donostia'ra juan gero: 2/7: egindako oke-rra; 3/3: ai, semiak galdu naut; 3/8: juantzan mun-

dutikan; 4/8: diruagatikan; 6/5: deklaraziyo txarra; 7/2: uko fuertian; 8/1: Azpeiti'ko erritikan; 9'gn. bertsoa falta da; 11/1: Donostiyan nuan nik; 11/2: artu albistia; 11/3: etzala posible neri; 11/5: ura nere orduko; 12/1: Donostiya'ko erritikan; 12/2: Azpeiti'ra ekarri; 12/3: bost gaurdi armatukin; 12/4: kotxian etorri; 13/5: Illbeltzan amaseian; 14/3: sententzi orrek ziran; 14/4: biotza urratu; 14/6: ondo konfesatu; 16/3: nere barrena zegon; 16/7: beste guziyentzako; 17/5: orregatik.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Manuel Ugalde bertsolaria, Andoain. Aurrekoa bezelaxe.

“Euskal-kantak”, Bilbao, 1960, 92'gn. orri-aldean. Onek aurreko biak bezela dakarzki gauza guziak.

BERTSO BERRIAK  
JUAN MARIA ZUBIZARRETA'K  
JARRIAK

1/ Jesus jaio ta irurogei ta  
amargarrengo urtian  
esan bear det zer pasatu zan  
Jerusalen'go partian,  
deskantsu gabe judu gaiztuak  
zeuden momentu batian  
idolo faltsuak adoratuaz  
deabruaren kation.

2/ Apirillaren amalaubian  
Pazkua-eguna genduan,  
festa aundiak egiten ziran  
Jerusalen'en orduan;  
kontrariua alderatua  
gerra emateko moduan;  
alako istillurik ez da izandu  
beste lekutan munduan.

- 3/ Bi milloi t'erdi persona zeuden  
Jerusalen'go kuadrilla,  
guziak agindu nai zuten, eziñ,  
beren arteko iskanbilla;  
ziudadia fuerte zeguan  
egiñak iru muralla,  
erromatarrak kontra etorri, (1)  
Tito gerrero abilla.
- 4/ Garai orretan Vespasiano zan  
Roma'ko enperadoria,  
ark bialdua juduen kontra,  
Tito zan bere semia;  
idolo-zaliak menderatzeko  
artuak zeuden idia,  
krueldadezko gerra izan zan  
iñun parerik gabia.
- 5/ Jerusalem'i bistak artzeko  
txit deseatuak oso,  
bostegun zaldizko lagun arturik  
Tito abiatu animoso;  
idolo-zaliak barrendik irten,  
gogor zioten eraso;  
batalla orretan geratu ziran  
juduak bitorioso.

---

(1) Emen, eta bestetan ere bai, *Romatarrak* dio, neurrian motz gelditzen dalarik. Guk uste. Zubizarreta'k *Erromatarrak* jarriko zuan. Orregatik, ala idatzi degu emen.

- 6/ Erromatarrak preparatuak  
Jerusalen'go onduan,  
lendabiziko muralla artu  
zan Maiatzaren iruan;  
bigarrena ere ebaki zuten  
egun gutxiren buruan,  
soldaduari deskansu ematen  
Tito jarri zan orduan.
- 7/ Odol ixurtze aundia izan zan  
eskarmentuan sartzeko,  
Titok ordena judu gaiztuai  
onian entregatzeko;  
zar eta gazte, txiki aundiak,  
etzeuden errenditzeko,  
asmo gaiztuak alrebes irten  
beren buruak galtzeko.
- 8/ Erromatarren buruzariak  
lendabiziko ordena:  
Jerusalen'i kanpotik bueltan,  
muralla egin aurrena;  
juduai orrek ematen zien  
asko oñaze ta pena,  
andik aurrera etzuten sartzen  
jan-gauzarikan barrena.

- 9/ Arrantxorikan etzeguan an  
taberna edo kafian,  
janaren usaia sentitu ezker  
sartutzen ziran etxian;  
persona zarrak ezpatazoka  
ta aurak ostiko-pian,  
soldau gaiztoak, zuena eman arte,  
etzuten uzten pakian.
- 10/ Jerusalem'en txit gutxi zeuden  
jan-gauzarekin aseta,  
alde aurrez esanak zeuden,  
geratu ziran beteta;  
Maria zeritzan andratxo batek  
artua zeukan apeta,  
bere aurra ill da jan zuan  
burruntzi baten erreta.
- 11/ Sitiyo orretan juduak zeuden  
oso kastigu latzetan,  
goseiari izurriz lagun  
sartu zitzaien benetan;  
irurogei ta amabost egun,  
denbora labur orretan,  
sei egun milla illak baziran  
Jerusalem'go kaletan.



12/ Kastigu latzak zetozkiela  
juduak zeuden etsita;  
jan-gauzak aitu, kanpora juan,  
belarrak biltzen asita,  
ta prisionero Titok arrapatu  
modu ortan ikusita,  
egunak baziran bostegun illak  
gurutzietan josita.

13/ Gose-izurriak galtzen zituan  
zarrak iguak gaztiak,  
judu gaiztuak pasiak ziran  
guziz istillu tristiak;  
Jerusalen'en gorputz illakin  
baztar guziak betiak,  
jente guzia nazkatzen zuan  
usaiak eta pestiak.

14/ Prisionero erori ezkerro  
zeuden kastigu gogorrek:  
eskuak ebaki, belarriak moztu,  
gañera kendu sudurrak;  
oiek eginda barren itzuli,  
orduko ango negarrak!  
nork beretzat ezagutzeko  
ez dira istillu ederrak.

- 15/ Entregatzera juduak asko  
urria janda berekin,  
Arabia, Siria, Erromatarrak  
oritu ziran orrekin;  
tripak atera, monedak kendu  
koraje illunarekin;  
lan-bide ori Titok eragotzi  
ordena gogor batekin.
- 16/ Indarrez barrena sartzeko Tito  
laister egin zan prestatu,  
odol askoren truke muralla  
ostiko-pean pasatu;  
Jerusalen'go jaun eta jabe  
Erromatarrak geratu,  
gaztelura ta tenplora ziran  
juduak erretiratu.
- 17/ Bi murallakin tenplua zeguan  
gaztelu baten antzera,  
Erromatarrak abenturatu  
indarrez barrena sartzera;  
pelea gogorak egin zituzten  
aurrera eta atzera,  
derrigorrian judu gaiztuak  
jarriak entregatzera.

18/ Erromatarren kuadrilla zeguan  
kolera osoan sartua,  
soldadu batek leiotik bota  
illati aundi bat piztua;  
su ta garretan eleiza jarri,  
jende guzia nastua,  
Titok nai etzuala kiskali zuten  
Jerusalen'go tenplua.

19/ Bere soldaduak tenplua erria  
Tito zeguan penatuta,  
ederrez ta balioz aren parekorik  
munduan izan ez du-ta;  
sei milla gizon judu an zeuden  
batallan peleatuta,  
famili ta guzi bertan ill zituzten  
erromatarrak sartuta.

20/ Gaztelu ori artzeko egiñak (2)  
Titok preparamentuak  
aren ordenan entregatu nai ez  
an zeuden judu gaiztuak;  
Agorran zortzian Sion'go mendian  
erromatarrak sartuak,  
bertan ill zituzten egun orretan  
presionero artuak.

---

(2) Bertso-paperean: *egiña*.

21/ Juan Giskela ta Simon Giora  
idolo-zalien buruak,  
sitio orretan Jerusalem'en  
illak txit asko juduak;  
milloi bat eta gañera eun milla  
guziak bertan galduak;  
paradero txarra eraman zuten,  
daude señaile klaruak.

22/ Jerusalem guzia Titok erria  
gerra galgarri orretan,  
eun milla judu erori ziran  
presionero utsetan;  
gero guziak jarriak ziran  
feria edo salmentan;  
ozta erosliak izan zituzten,  
iñork etzeuzkan ezertan.

23/ Juduan ontasunak gordiak zirala  
Titori ori oroitu,  
Jerusalem'go lur guziak ark  
goldatu eta aratu;  
modu orretan erromatarrak  
interesa asko billatu,  
balioz urria paraje artan  
erdira egin zan bajatu.

24/ Judea guzia geratu zan  
erromatarren eskuan,  
profeten esanak an agertu ziran  
bere denbora justuan;  
eskapatu zuten judu bakarrak  
or dira al duten lekuan,  
erri baten jabe oiek ez dira  
geiago egingo munduan.

25/ Ondamen ori nola izango zan  
Jesusek berak esana,  
sinismenikan etzuten artu  
judu gaiztuak argana;  
gurutze baten josi ta ill zuten  
adoratu bear zana,  
kastigu ori bidezkoa zan,  
gure Jainkuak emana.

26/ Judu gaiztuak Jesus maitia  
gogotik gurutz-illtzatu,  
txutik asentatzen golpearekiñ  
zaiñ guziak ere urratu;  
amabietan josi, iruretan ill,  
tormentu asko pasatu;  
kanalla oiek salbadoria  
modu orretan tratatu.

27/ Ostiral santuz Jesus illa zan,  
izan dezagun goguan,  
orazio egiñaz artzaz oroitu  
beti gabiltzan lekuan;  
obra oberik ez da egingo  
animarentzat munduan,  
gero guziok gerta gaitezen  
alkarren lagun zeruan. (3)

---

(3) Bertso-papera, "Azpeitian P. Martínez-en mol-  
disteguiari", Aita Jose Inazio Arana zanaren bertso-  
-bilduman, Loiola'n.

**SAN PABLOREN BIZITZA  
BERTSOETAN**

1/ Bertso bi paratzeko  
artu det asmua,  
arren lagun zadazu,  
Ama zerukua;  
espiritua argitu,  
Seme Jaungoikua;  
San Pabloren bizitza  
kantatzera nua.

2/ San Pablo apostolua  
lenbizi gaiztua,  
Jesusengana gero  
zan konbertitua;  
kristandadea obia  
zala pensatua,  
bereala artu zuan  
bautismo santua.

3/ San Pablo ori fedian  
txit firme zijuan,  
Jesusen apostolo  
nai zuala juan;  
San Bernabe berekiñ  
lagun artu zuan,  
Panfilia'ko Perge'n  
predikatu zuan.

4/ Perge'tikan urrena  
juan zan Listra'ra,  
beti elbarri zana  
ekarri aurrera;  
San Pablok altxatzeko  
oñaren gaiñera;  
sendatu eta brinkoka  
juan zan kalera.

5/ Milagro ori egiñik  
segi predikua,  
ango konbertitzia  
arrigarrizkua;  
esaten zuten zala  
bera zerukua,  
gizon-itxurarekin  
gure Jaungoikua.



6/ Neskatz bat sorgintzan  
etsaiakin nastuta,  
deabrua zedukan  
barrena sartuta;  
San Pablok libratua  
Jesusi eskatuta;  
preso eraman zuten  
dana azotatuta.

7/ Gaizki tratatu zuten  
ziegako zepuan,  
lur-ikara sortu zan  
gau-erdi inguruan;  
ango buruzaria  
ikaratu zuan,  
juateko libertadia  
laister eman zuan.

8/ San Pablo abiatu zan  
Jerusalen'era,  
ango pobre gaixuai  
limosna egitera;  
bera iltzeko asmuak  
etzeuden atzera,  
kontramartxa egifik  
juan zan Trode'ra.

- 9/ Trode'n konbertitua  
ango kuadrilla,  
naiz zala judua ta  
igual jentilla;  
leio altu batetik  
erori mutilla,  
San Pablok piztu zuan  
Eutikio illa.
- 10/ Allegatu zanian  
Jerusalen'era,  
limosnak partituta  
juan eleizara;  
golpeka atera zuten  
andikan kanpora,  
bi katerekin loturik  
preso gaztelura.
- 11/ Juduak atzetikan  
gaztelura zuzen,  
egun artan ikusi  
nai zutela iltzen;  
gezurra besterikan  
etzuten asmatzen:  
San Pablo zebilela  
mundua enredatzen.

- 12/ Azotiak emateko  
lenbizi ordena,  
preparatzen ari zan  
kargua zeukana;  
aditu zutenian  
romatarra zana,  
ikeratu ango buru  
egiten zuana.
- 13/ Bigaramonian zeguan  
tribunal idikia,  
Pablori egiteko  
bertan jutzizia;  
bi aldetara zeguan  
jendia jarria,  
erabaki etzuten  
orduko auzia.
- 14/ Jesusek gazteluan  
bertatik itzegin:  
ez ikaratutzeko  
enemiguakin,  
Roma'n predikatzeko  
gogo onarekin;  
San Pablo animatu zan  
arrazoi orrekin.

- 15/ Kontrario gogorak  
juduak biziro,  
pakerik izaterik  
etzuten espero;  
San Pablo isillikan  
biraldua gero;  
zer nola pasa ziran  
orra esan klaro.
- 16/ Geroztik sei illabete  
pasa itxasuan,  
allegatu ziraden  
galtzeko estaduan;  
San Pablori Jesusek  
itzegiñ orduan:  
iritxiko zirala  
Malta'ko puntuan.
- 17/ Arrimatu iraden  
kosta-baztarrera,  
arroka jo zuan da  
barkua ondarrera;  
ol-puska gaiñ edo igari  
danak legorrera;  
modu artan izan zan  
Malta'ko sarrera.

- 18/ Milagruak egiñaz  
Malta'n ere ala,  
askok esaten zuan  
Jesukristo zala;  
San Pablok egin zien  
kontra beriala,  
kruzifikatu zana  
besterik etzala.
- 19/ Malta'n txit jente asko  
ark konbertitua,  
guziak artu zuten  
bautismo santua;  
Apirillaren erdian  
zan martxa artua,  
Maiatzaren aurrenien  
Erroma'n sartua.
- 20/ Jerusalem'dik Roma'ra  
bitarte guzian,  
soldaduak atzetik  
berekin guardian;  
ala ere predikatu  
zebillen tokian;  
neke gogorak ziran  
nere iritzian.

21/ Jerusalem'dik geroz  
Pabloren nekiak  
lanik asko ematen dit  
adieraztiak;  
bi urtian loturik  
berekin katiak,  
libratu Erroma'ko  
enperadoriak.

22/ Katiak libratu-rik  
laister ondorian  
Erroma'n predikatu  
bere egiñalian;  
geroztik izandu zan  
gure España'n,  
jendia jarri-erazitzen  
zerura bidian.

23/ San Pablok sasoi artan  
lan izugarriak:  
eliza zarrak bisitatu  
egiñaz berriak,  
illak piztu, gañera  
sendatu elbarriak,  
konbertitzen zituan  
ereje guziak.

24/ Garagarrak ogei ta  
bederatzi zituan,  
Neron enperadoriak  
Erroma'n ill zuan;  
alako krueldaderik  
izan zan orduan,  
oraiñ gloria gozaten  
daukagu zeruan.

25/ Pekatariak biar degu  
biotzak bigundu,  
San Pablok nai badegu  
zerutik lagundu,  
ango gloria ederra  
alkantza al bagendu;  
Zubizarreta'k ori  
desiatutzen du. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Azpeitian P. Martínez-en mol-  
disteguiari", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "Imp. de B. Valverde. — Irún",  
Bodleyan Library Oxford.

## SANTA JENOBEAREN BIZITZA

- 1/ Santa Jenobeba nolakoa zan  
astera nua kantatzen,  
orretarako laguntasuna  
berari diyot eskatzen;  
aren bizitza letu ezkerro  
egon liteke arritzen,  
Jaungoikoaren argi ederra  
ibillia zan zabaltzen.
  
- 2/ Santa Jenobeba sortzetikan zan  
dukesa baten alaba,  
kondearekin ezkondu eta  
juan zan Rein ta Mosala;  
Jesusengana izandua zan  
txit fiña eta leiala,  
gaztetan ere edukatua  
munduan gutxi bezela.



- 3/ Jenobebaren esposo au  
zan Sijifredo kondea,  
pobrearentzat errukitsua,  
jenioz ere noblea;  
Golo gaiztoa maiordomoa,  
bizio txarren jabea,  
traizioan izandua zan  
iñun parerik gabea.
- 4/ Rein ta Mosala palazioa,  
deitzen zioten jauregi,  
gerra-albista bildurgarri bat  
ara zitzaien etorri;  
orra kondea suertatu da  
juatia agintari,  
esku-bidiak utzi zizkion  
bere maiordomuari.
- 5/ Esan bear det nola pasa zan  
etxe artako kontua:  
laster egin zan guzien buru,  
Golo zan atrebitua;  
azkenekotzat egiten dio  
pregunta eskusatua,  
Santa Jenobeba gauza oiekin  
egon zan txit penatua.

- 6/ Jenobebaren gustua etzan  
gizon orren kortesia,  
esposoari abisatzea,  
au zan deseo guzia;  
karta batekin abiatu zan  
etxeko serbitzaria,  
Golo gaiztoak arrapatu ta  
ezpataz kendu bizia.
- 7/ Golok artzen du asmo sendo bat  
kondea engañatzeko,  
karta falsoak atzera aurrera  
etxeko-andrea galtzeko;  
andikan laster logratu zuan  
kalabozoan sartzeko;  
Santa Jenobeba mundura etorri  
tormentu asko ikusteko.
- 8/ Presondegian sartu zanetik  
egun gutxiren buruan  
Santa Jenobebak bere burua  
aurdun an sentitu zuan;  
Sijifredoren kriatura au  
jaio egin zan orduan,  
laguntzallerik grano bat ere  
kalabozoan etzuan.

9/ Golo zebillen denbora artan  
Luziferrekin nastua,  
lujurioso engañatuta  
pekatuz aberastua;  
kriaturari mantxa kentzen  
au ezin logratua,  
amak semea bataiatzen du,  
izena: Desdixatua.

10/ Ama-semeak kalabozotik  
iltzeko sententziatu,  
kondeagandik Golo gaiztoak  
traizioan logratu;  
borrero aiek iltzeko ustez  
aurrean an zuten artu,  
orduan ere Jesus maiteak  
eriotzatik libratu.

11/ Borrero bata ezpatarekin  
iltzeko zeguan jarria,  
batak besteai agindu zion  
tapatzeko arpegia;  
orduan ere probatu zuan  
agoniako larria;  
gizon oieri jatxi zitzaien  
zeruko esperientzia.

- 12/ Borreroari maiordomoak  
modu onetan ordena:  
Jenobebaren begi oriek  
entregatzeko argana;  
artu eskuan zakur-begiak,  
Konrado ori juana,  
Golo gaiztoak ez ezagutu,  
guzientzako fortuna.
- 13/ Modu orretan jarria zan  
eriotzako aurrian,  
Jaungoikoari erregututzen  
akordatzen zan guzian;  
borrero oiek ordenatua  
juramentuan azpian:  
mendi mortuan egon zedilla  
bere bizitza guzian.
- 14/ Ama-semeak geratu ziran  
bakarrik mendi mortuan,  
lendabiziko gau ura pasa  
arbola baten onduan;  
arrats orretan elurra ere  
gogotikan egin zuan,  
zenbait otz-bero igarotzeko  
jaioak ziran munduan.

15/ Andik urrena kueba sartu  
Jaunak emanik bidea,  
erregututzen aritutzen zan,  
arturik zeukan fedea;  
basauntz batek mantentzen ditu  
Jenobeba ta semea,  
abere oni pizti gaiztoak  
orduko jana umea.

16/ Santa Jenobebak probatu zuan  
nolakua zan pobreza,  
basauntzaren esnearekin  
semea eta kondesa;  
sufritu zuan kueba artan  
miseria ta flakeza,  
tormentu oiek adieraztia  
ez dago gauza erraza.

17/ Ama-semeak narru gorrian  
egonak zazpi urtean,  
bere gizona eta lagunak  
eizera juan artean;  
basauntz bat billatu zuan  
sasi batzuen artean,  
ondoren ari sartutzen zaio  
kueba-zulo batean.

- 18/ Basauntzaren talaian egon  
begiratuaz aurrera,  
iduritua an zeguala  
persona baten figura;  
agindu zion bizia bazan  
ateratzeko kanpora,  
bere esposa arkitzen zaio,  
konde jaun ori lurrera.
- 19/ Bere esposa tristeza artan,  
kondea desmaiatua,  
izketan asi, etortzen zaie  
saltoka Desditxatua;  
elur artean larru gorrian  
ura zan mutil pijua,  
aita berea ikusitzian  
geratu zan arritua.
- 20/ Desditxatuak egin zituan  
galdera arrigarriak,  
aturdituta egonak ziran  
aditzen zeuden guziak;  
Sijifredo orrek biraltzen ditu  
etxera serbitzariak,  
agindu zien eramateko  
kotxea eta zaldiak.

- 21/ Aita-semeak eta kondesa  
sartu ziraden kotxean,  
basauntz ura eraman zuten  
beren ondoren atzean;  
pena samiñak aztutzen asi,  
alai zeuden biotzean,  
andik aurrera ondo izanak  
irurak beren etxean.
- 22/ Borrero Konradok eta Enrikek  
bazuten juizioa,  
ezagutu ta ibilli ziran  
Goloren okasioa;  
ama-semeak billatutzean  
eskatu barkazioa,  
kondeak eman andik aurrera  
betiko salarioa.
- 23/ Urte betean kondea ibilli  
moruen gerra orretan,  
etxera etorri, Golo gaiztoa  
traizioko lanetan;  
saldukeria deklaratu  
txantxarik gabe benetan,  
andik aurrera bizi zan arte  
kalabozoan penetan.

- 24/ Kulpa-gabeak ill-eraztia  
delitu izugarria,  
orregatikan kalabozoan  
kondeak sar-erazia;  
eskaporikan etzedukala  
artua zeuan etsia,  
ama-semeak billatu ezkerro  
Golori kendu bizia.
- 25/ Urkabe baten Golo ill zuten,  
pasa istillu gogorak,  
berri onikan ez du banatzen  
enbidioso alperrak;  
lujuriako pekatutikan  
etorri ziran okerrak,  
gorputzerako mesede gabe  
animarentzat negarrak.
- 26/ Jenobebaren bizitza onetan  
jarri gaitian kontuan,  
zenbat tristura eta naigabe  
igaroa zan munduan;  
errukitsua ta limosneria  
bera zebillen lekuan,  
justua izan, pozak zoratzen  
eriotzako orduan.



27/ Ama-semeak igaro zuten  
bizitza guziz samia,  
zar-gaztientzat ejemplo onetan  
ederra dago dotriña;  
pekatariak, ikasitzera  
orain egin alegiña,  
liburu oiek kostatzen dira  
errial bi ta erdiña. (1)

28/ Juan Maria nere izena,  
ondoren Zubizarreta;  
Santa Jenobeba egon zan kueban  
egiña dago ermita;  
persona franko arritutzen da  
orain ura ikusita,  
orregatikan zabaldu nai det  
euskaldunetan albista. (2)

---

(1) Emen aitatzen dan liburua, K. Schmid'ek prantzesez idatzi, Zarautz'ko Gregorio Arrue'k euskeratu ta Euskalerra guzian ainbesteraño zabaldu zana izango da. Liburu ortatik atera zuan Zubizarreta'k bertso auetarako gaia; Zapirain'ek bezelaxe, beraz.

(2) Bertso-papera, "ONATE: Imp. de M. Raldúa", ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Bertso-papera, "Tip. de S. de Diego. — Eibar", Zarautz'ko baserri batetik Manuel Oñatibia jaunak eskuratua.

Bertso-papera, "Imp. de Fernandez y Diego. — Eibar", Ondarrabia'ko Fernando Artola, "Bordari".

Bertso-papera, "Guernica. — Imp. Angel de Goitia", Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduma.

Bertso-papera, "Guernica. — A. de Goitia y Compañía", Jose Aldalur, Ugarte, Azkoitia.

Onerañoako bertso-paper auk, alkarren artean aldaketarik ez dute. Guziak, ogei ta zortzina bertso dute; emendik aurrerakoak, berriz, ogei ta zazpina. 28'garrena falta dute.

Bertso-papera, "Eibar. — Imprenta de Pedro Orúe", Donostia'ko Juan Arbelaiz jaunaren bitartez eskuratua. Aldaketak: 13/1: Modu orretan ateria zan; 13/2: eriotzako auzian. Bertso-paper au, D'Abbadie jaunak bildu ta Paris'ko Bibliotheque Natonale'n dagoan bertso-bilduman ere arkitu degu; bañan eskuz erantsita itz auk dauzka: *Pris à Durango 1891*.

Bertso-papera, "Guernica. — Imp. Artística Goitia y Hormaechea", Lexo bertsolariaren alaba dan Adelina Sarasola, Donostia. Aldaketak: 8/2: egun gitxiren barruan; 8/7: laguntzallarik.

*Bertsolariya* bertso-errebista, 13'gn. zenb., 1931/XII/13. Onak ere ogei ta zortzi bertso ditu. Izenburua: *Santa Jenobeba'ren bizitza Zubizarreta'tar Juan Mari'k jarriyak*. Aldaketak: 22/4: Goloren okultoia.

# ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I.
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan.
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren.
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.<sup>a</sup> Labayen*: Malentxo alargun!
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. *F. Imaz*: Bertso guziak.
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzen.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin.
39. Amar urteko bertso-paperak.

- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsularia.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia.
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsuak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.

IMPRESO EN ESPAÑA